

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko apirilaren 19a / 492. zenbakia

BERGARA
HIRIA
PILOTA
TXAPELKETA
HASI DA

KALE GARBIKETA: CESPA GREBAN ASTELEHENETIK AURRERA/5 • ELKARRIZKETA: KIKE AMUNARRIZ/7

BERGARAKO GREMIOEN GIDA

zure etxearen

osasun onerako

**AGIRRE
MARGOAK**Artzamendi 2,
5-D
943 76 53 82

- Orotariko pintaketa lanak

ARISTEGI-TOLA

ITURGINTZA

Bolu 26
943 76 54 17

- Kalefakzioa
- Bainurako altzariak eta dekorazioa
- Konponketak

Aribar pol. C-4,
S. Juan auzoa
943 76 02 78
670 422 059
F 943 76 02 78

- Pintura
- Dekorazioa

*Saneamientos
de Gipuzkoa, S.L.*Santalaitz 2,
ITV/IAT ondoan
943 76 06 44
F 943 76 06 45

- Saneamendu eta berogintza materiala
- Bainugelarako osagarriak: Roca

**EGUREN
INTURAK**Irala kalea z/g
943 76 33 01
F 943 76 33 01

- Orotariko pintaketa lanak

*Iturkintz Berri S.L.*Amillaga 1
943 76 28 04
F 943 76 36 58

- Bainurako altzariak
- Era guztietako kalefakzio instalakuntzak

J.M. IZAGIRRE
IgeltseritzaLoidi baserria,
Angiozar
943 76 56 86

- Teilatu, fatxada, sukalde eta bainugelen berrikuntza

*Antonio Bouzas*Zurradero 8, 1-A
943 76 06 12
689 805 802

- Margoak eta dekorazioa

**MATXIATEGI S.L.**
ELETRAGINTZAZurradero 8
943 76 19 94

- Material eta etxeo tresna elektrikoak
- Instalazioak
- Hari musikala

**Andres
margoak**Zubiaurre 19
Ozaeta 9
669 887 814
669 887 815

- Pintura dekoratiboa

BERGARA
MargoakAmillaga 1,
1. pabilioia
162 p.k.
943 76 97 31
F 943 76 97 32

- Orotariko pintaketa lanak

**Fontaneria**
Larrañaga, s.l.Matxiategi 16
943 76 29 97
F 943 76 04 22

- Diba: bainuaren diseinu osoa
- Gas instalazioa
- Berogailuak

AYASTUY
AROSZTEGIAZubieta 14
943 76 17 53

- Orotariko arotz lanak

**UR**
kristaldegiaMartoko 1-3
943 76 54 68

- Ispiluak
- Beirateriak
- Biselatuak
- Plastikoak

EI izarra
elektrizitateaZubieta 10
943 76 54 10
943 76 19 99
943 76 10 60

- Orotariko instalazio elektrikoak


ATREBENTZIAEZPADA/ Gaztion euskeria gure nagusixena baiño kaskarragua dala uste dozu?



KARMEN EGUREN
73 urte



JULEN EGAÑA
23 urte



IÑAKI MENDIA
18 urte



BLANCA NARBAIZA
45 urte



EDURNE BARRIOLA
20 urte



MIRIAN BASAURI
30 urte

Gaztiekin gaur egunian ikasten dabena euskeria diferentia pentsatzen jotzen; asteko egunak ez ditut ententitzen. Ez naiz ententididua, baiña erderazko berbak be erabiltzen dituzue.

Gazte batzuna bai eta beste batzuna ez. Nik egia esan ez dot euskaraz asko egiten, gaztelarazko joeria haundixagua daukat. Eta gainera, pentsatzen dot nahiko orokorra dala hori.

Nik baietz uste dot. Gaztelera asko sartu da eta gaztelarazko hitz asko erabiltzen ditugu euskaraz gabizenian be. Igual euskeria pixka bat atzera gelditzen dabil.

Normalian bai. 14-15 urteko umiak euren artian dabilenian hizkera kolokialian, "baleikezu" modukuak erabiltzen dabe. Baiña gurasuekin darenian ondo esaten dabe gauza bera.

Kaskarragoa ez dakit. Nik uste zonaldeka doiala, eta batez be erderakadak aipatuko nintzuke nik. Erderakada nahikotxo erabiltzen ditugu eta normaltzat hartzen ditugu, gainera.

Gaixkixago baiño desberdin esango nuke nik. Guk gehixago jotzen dogu baturara eta gure gurasuekin herriko euskara garbixagua egiten dabe. Bestetik, erderaz be nahikotxo egiten dogu.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK ZUHAITZ GUTXIAGO Eroski ondoko espaloian, bi zuhaitz gutxiago daude pasa den astetik. Bietako bat pasa den astean bota zuten. Supermerkatura jakiak ekartzen dituzten kamioiak deskargatzeko traba egingo zuten, akaso, zuhaitzok. Botatako biak Eroskirako sarrera parean zeudelako diogu hori. Herrigunean zuhaitzak kentzea landatzea baino errazagoa da. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /5

Pazkoetarako guztia prest

Jaien atarian gaude eta guztia prest dago, jadanik. Bost egunetan zehar hainbat ekitaldi egongo dira.

KIROLA /10

Bergara Hiria txapelketa

Bergara Hiria pilota txapelketa hasi da. Promesa zein afizionatu mailako onenak arituko dira.

KULTURA /13

Galestarrak Bergaran

Galeseko Gobernu Kultura ministroaren bisita aprobetxatuz hari egindako elkarrizketa jaso dugu.

IRAKURLEAK MINTZO

BESTE ERASO BAT ARRANO TABERNAN

Arrano tabernako langileok eskutitz honekin, azken aldiari jasandako erasoei buruz hitz egin nahi dizuegu. Izan ere, azken bi hilabeteotan lapurretak izan ditugu, besteak beste.

Duela bi hilabete pasatxo, taberna sarreran zegoen Arrano Beltzaren plaka lapurtu egin zuten palanka batekin apurtuz. Harriturik utzi gintuen hark!

Hurrengo astean bertako langileetako bat taberna zabaltzera zihoala, tabernako sarrera kola gogor batez blai eginda aurkitu zuten. Bitartean, beste plaka bat ipintzea erabaki genuen, marmolezko plaka batean Arrano Beltza tailatua, eta norbaitek, gauean, lapurtu egin zuen berriz. Erasoa, ilegalizazio, mehatxu, eta abarren gainera guk gure lanean jarraituko dugu.

BERGARAKO ARRANO TABERNAKO LANGILEAK

BESTE EKESANA

Gazteak ez daude guri begira. Guk antolatzen dugun ekintzaren bat ikustean paso egiten dute. Orain artean horrela izan da, behintzat. Nik uste dut garrantzitsua dela hemendik aurrera zaharrekini begirune pixka bat gehixeago izatea.

JOSE ARENAZA
Euskaldunon Egunkaria/02-04-14

BERAIEK DIÑO/ Juan Martin Elexpuru



Garai gogorren atarian?

Nahiz eta hemen ekonomia askorentzat ondo samar joan, ezin da esan garai errazak bizi ditugunik, eta giro politikoari erreparatzen badiogu, garai gogorren atarian ote gauden ere pentsa daiteke. Izan ere, Charloten "Diktadore Txikiaren" gobernu — estatua, azken batean — inoiz baino harroagoa eta erasokorrago dabil, kristorenak eta bi egiten, eta handiagoak egin guran. Torturak, neurririk gabeko kartzela-zigorak, erakunde politikoak ilegalizatzeko legeak, eta ikusteko gaudenak. Mendean hartuta ditu parlamentu, lege gizon eta hedabide, eta prest dirudi azkeneraino joateko bere itsukeria faxistan.

Beste aldean, erakunde armatua ere itsu, ez buru eta ez hanka duen jardunean, atentatu sinestezinak eta ulertezinak burutzen. Azken agirian, gainera, alde ez dituen guztiak areritotzat jo ditu, baita suetena eskatu dioten ezker abertzaleko taldeak ere.

Esan ohi da herri bakoitzak merezi duen gobernu eta gizarte duela. Askotxo esatea da hori, baina topikoetan ere egoten da egi puntua. Izan ere, ohitura handia dugu dena politikoen —edo militarren— esku delegatzeko. Politikoez txarto berba egin bai, baina gero inor gutxi egoten da, erantzukizunak hartzeko prest. Ondorioz, jende eskax ugari heldzen da agintera. Eta gero etortzen dira kontuak.

Izaten dira historian momentu erabakigarriak, aro luze bat markatzen dutenak.

Uztailaren 18 bateko diktadura ekarri zuen. Ez ote gaude orain halako une historiko batean? Argi. Eta politikoez huts egiten dutenean, gizarte zibila —zu eta ni azken batean— martxan jartzen ez bada, garesti ordainduko dugu, bai guk eta bai ondorengoek.

Saramagok esan ohi du bakoitzak mundu hau hobetzeke egin dezakeguna oso gutxi dela, baina gutxi hori ez egitea arinkeria barkaezina.

"Uztailaren 18 bateko diktadura ekarri zuen. Ez gaude orain halako une historiko batean?"

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako Kultura saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Bergarako Udala



Antzuolako Udala



Elgetako Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 19
CAMACHO, Oxirondo 4 943 76 11 74

ZAPATUA, 20
PUY, Barrenkalea 25 943 76 19 63

DOMEKA, 21
PUY, Barrenkalea 25 943 76 19 63

ASTELEHENA, 22
GUALLAR, San Antonio 5 943 76 11 05

MARTITZENA, 23
ESTELLA, Matxiategi 5 943 76 19 63

EGUAZTENA, 24
MOZOS, San Pedro 4 943 76 12 15

EGUENA, 25
CAMACHO, Oxirondo 4 943 76 11 74

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK
Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 76 53 40
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRAIOAK
Taxiak 943 76 19 50

UDALA
Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kiroldegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK
Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedekar 943 76 04 68
Akulu AEK 943 76 05 18
Udal Euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notarioa 943 76 10 73

MEZAK

Santa Marina	Domekak: 10:30, 11:30, 13:00, Zapatuak: 19:00, Lanegunak: 19:15.	Domekak: Labegarieta Domekak: 11:00, San Lorentzo Zapatuak: 20:00, Angiozar Domekak: 09:30, 12:30, Zapatuak eta 11:30, lanegunak: 19:00, Sierbak Lanegunak: 19:30, Osintxu Domekak: 12:30, Zapatuak: 19:00, Elosu Domekak: 10:30, Ubera Domekak: 10:30, San Juan Domekak: 11:00, Eiorregi
		Labegarieta Domekak: 11:00, San Lorentzo Zapatuak: 20:00, Angiozar Domekak: 09:30, 12:30, Zapatuak eta lanegunak: 19:30, Uzarraga Domekak: 10:00,
URTE-MEZAK		
Santa Marina	Hileko 2. astean, domekan, 11:30ean.	
San Pedro	Hileko 3. astean, domekan, 12:30ean.	

OHARRAK

1949AN JAIOTAKOAK
1949an jaiotako bazkaria apirilaren 27an Tartufo jatetxean. Autobus zerbitzua egongo da. Izena ematea Tartufo jatetxean, 943 76 35 51 telefono zenbakian.

1943KO KINTOAK
1943ko kintoen (1922an jaiotakoak) afaria apirilaren 27an Sirimiri jatetxean, 21:00etan. Aurretik, 19:00etan, meza Santa Marinan. Txartelak Azkarate estankotan.

1963AN JAIOTAKOAK
1963an jaiotako bazkaria maiatzaren 4an Torrekua jatetxean. Egunean bertan, 13:00etan, San Martin plazan elkartuko dira eta bazkaria 14:45ean izango dute. Bazkarira joan nahi dutenek Ariznoa tabernan eman beharko dute izena (6 euro aurretik) apirilaren 28a baino lehen.

MENDI IRTEERA
Gorla Alpinok eta Pol-Pol Mendizale Taldeak egun osorako mendi irteera iragarri dute hilaren 28an. Obrañanora, Umion mendatera eta Friasera joango dira. Irteera 08:00etan izango da, frontotik. Argibideak eta izena ematea Pol-Polen bertan, 943 76 48 51 zenbakian.

JARDUNENAGENDA

ZAHARBERRITZE IKASTAROA
Apirilaren 22tik maiatzaren 30era altzariak berritze ikastaroa egongo da. Argibideak: 943 76 08 19.

ARRATERA IRTEERA
Apirilaren 27an eta 28an, Arratera irteera izango da. Izena emateko epea apirilaren 22an bukatuko da. Plaza mugatuak. 27 euro.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorluzo aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarretik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugerza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN

Alkabetako Mariaren Sierbei buruz erreportajea

Orain dela hamar urte, hamar moja bizi ziren Alkabetako Mariaren Sierben komentuan. Ourensetik etorritako Sor Felisa mojaburuarekin izan ginen berriketan. Sierbetako mojek erizain lanak egiten zituzten, batez ere, eta gauz ere beharra zutenei laguntzen zieten mojek.



BERTAKO BERBAK / Juan Martin Elexpuru

"Jangarkia"



Jale txarra, mizkina. *-Jateko eskaxa danai esate jakok jangarkia, ume bat esate baterako.*

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA
Eguaztena, 10 **4 °C**

MAXIMOA
Martitzena, 16 **18 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²)
52,4 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 10	9 °C	4 °C	20,2 l/m ²
Eguena, 11	8 °C	5 °C	18,4 l/m ²
Egubakoitza, 12	12 °C	5 °C	4,2 l/m ²
Zapatua, 13	11 °C	8 °C	2,7 l/m ²
Domeka, 14	8 °C	7 °C	6,1 l/m ²
Astelehena, 15	9 °C	6 °C	0,6 l/m ²
Martitzena, 16	18 °C	4 °C	- l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKO FILMAK

'UNA MENTE MARAVILLOSA'

ZUZENDARIA: RON HOWARD. AKTOREAK: RUSSELL CROWE, JENNIFER CONNELLY.

HARIA. John Forbes Nash matematikari eskizofrenikoaren bizitzan oinarritutako filma Oscarretako irabazlea izan da.



TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30 eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean.

PUNTAZIOA: ● ● ● ● ●

'LA SPAGNOLA'

ZUZENDARIA: STEVE JACOBS. AKTOREAK: LOLA MARCELI, ALICE ANSARA, LOURDES BAR-TOLOME, ALEX DIMITRIADES.

HARIA. Filma 1960. urtean girotuta dago, Australian. Senarrak utzi izango du *Lola* izeneko emazte espainiarra eta 14 urteko alabak ere ihes egingo du. Senarra hil tzean, ama eta alaba berriro elkartuko dira, baina gauzak ez dira errazak izango. Liskarrak eta adiskidetzak izango dituzte.

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Egunean (hilak 25), 20:00etan.

PUNTAZIOA: ● ● ● ● ●

ETXEPARE-BILINTX LIBRYDENDA



Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12. 943 76 40 50 BERGARA

PAZKOAK/ Aurtengo Mendekoste 132.222 eurotako aurrekontua izango dute

Mendekoste jaien atarian guztia prest berritasun handirik gabeko egitarauarekin

MONIKA BELASTEGI

Guztia prest dago Pazkoetarako. Maiatzaren 17tik 21era jaietan murgilduko da herria. Udalak antolatzen duen egitarauak hainbat ekitaldi jasotzen ditu, nahiz eta berritasun handirik ez dagoen. Txosna batzordea ere azken ukituak ematen ari da bere egitarauari.

Oso denbora gutxi falta da Mendekoste jaietan murgiltzeko. Udaleko arduradunak ere azken orduko nabardurak egiten ari zaizkio jai egitarauari Pazkoetarako guztia prest egon dadin. Bost egunean zehar hainbat musika emanaldi, antzerki eta kaleko ekitaldiak izango dira nagusi herriko jai handietan.

Jaiak, ohi bezala, Bitoriana-txoren jaitsierak emango die hasiera maiatzaren 17an, 20:00etan. Ordu horretatik aurrera Bideberriko txosna gunea eta barrakak irekiko dituzte eta jai giroa guztiz nabaria egingo da herrian.

Azken urteetan bezala, egubakoitz gauean ekitaldi nagusietako bat egongo da Udal Pilotalekuan. Aurtun, Golden Apple Quartet taldeak Bergarako Orkestra Sinfonikoaren egingo du emanaldia. *Con cierto estilo* Golden ikuskizuna eskaino dute Enrike Ugarte Alonsoren zuzendaritzapean.

BIDEBERRIKO ROCK KONTZERTUAK

Urteroko zitari hutsik egin gabe, txosna gunean, Bideberri, bertako zein kanpoko hainbat musika talderen kontzertuak ikusteko aukera ere izango da. Honako hauek: Gloomy House, Meows, La secta, Super cools, Mony Suzuki, Nitwitz, Rock A. Hulas, The ele-



ARTXIBOA

Bi erraldoi estreinatuko dituzte jaietan; iaz beste bi estreinatuko zituzten. Horrela, seik osatuko dute erraldoien konpartsa.

*Golden Apple
Quartet taldeak
Bergarako Orkestra
Sinfonikoarekin
batera abestuko du*

vators, Betagarri, Kuraia, Basque Country eta UKO.

Txosnei dagokienez, bost egongo dira aurtun: AEKk, EHEk, Txapa Irratiak, Gestorak eta Bata-

*Bost txosna jarriko
dituzte Bideberri:
AEK, EHE, Txapa
Irratia, Gestorak eta
Batasuna*

sunak jarritako dituztenak. Horrekin batera, duela bi urte sortutako Txosna Batzordeak hainbat ekitaldi antolatu ditu txosna gunerako, nahiz eta oraindik

*Bi erraldoi berri
estreinatuko dituzte
Pazkoetan:
baserritar bikote
dotorea, hain justu.*

zehaztu gabe dauden. Horrez gain, gaztetxeko kideak ere kontzertuak antzerkia eta beste hainbat ekitaldiz osatutako egitaraua prestatzen ari dira.

ERRALDOIEN ALARDEA ETA ZEZENKETAK

Zapatuan, erraldoien alardea izango da. Aurtun, gainera, handitu egin da erraldoien konpartsa. Iaz bi erraldoi berri estreinatuko zituzten Pazkoetan, eta aurtun beste bi estreinatuko dituzte; bi baserritar dotore, hain justu ere. Erraldoiak Mikel Ibarzabal patingileak egin ditu iazko biak bezala. Hori horrela, sei erraldoi ditu jadanik, buruhandi eta kilikien konpartsak, eta dagoeneko osatua geratu da. Pazkoetako alardean erraldoiez gain, buruhandi eta kilikiak ere izango dira, eta baita Azpeiti, Urretxu eta zehaztu gabeko hirugarren herri bateko erraldoiak ere. Konpartsiak herrian barrena ibilbidea egiteaz gain, hainbat gunetan dantza egingo dute.

Zezenketak ere izango dira Pazkoetan, iaz bezala, autobus geltoki ondoan jarriko duten zezen plazan. Zapatuan, errekor-tadore txapelketa izango da, eta domekan, zezen festa Salamanca López Chávez-en ganaduekin. Gainera, hiru entzietako egongo dira domekatik martitzenera.

DANTZA SUELTO TXAPELKETA

Hamabost urtetik beherako bikoteendako Euskadiko Dantza Suelto Txapelketa ere Pazkoetan jokatuko dute. Domekan izango da; goizean kanporaketak egingo dira eta 15 bikote sailkatuko dira arratsaldeko lehiaketarako. Gainera, aurtun, hogeita bostgarren urterrena beteko du txapelketak.

Horrez gain, kale antzerkia, eta hainbat musika emanaldi egongo dira San Martin plazan eta Espolopian. Bestalde, umeendako jolas parkea, bakailao lehiaketa, herri trena, herri kirolak, pilota partiduak eta atletismo eta xake txapelketak egongo dira.

Cespako langileek muga gabeko greba hasiko dute astelehenean

MONIKA BELASTEGI

Astelehenetik aurrera muga gabeko grebari ekingo diotela iragarri dute kale garbiketaz arduratzen den Cespa enpresako langileek. Lan hitzarmena negoziatzen ari dira enpresako zuzendaritzarekin eta lan egutegiaren gaineko desadostasunak dira grebaren arrazoia.

Astelehenean hasiko dute Cespa hamar langileek muga gabeko greba. Berrigarako erredakzioa ixteko orduan (eguzten iluntzea) iragarpenak aurrera


jarraitzen zuen, behintzat. Lan hitzarmena adosten ari dira zuzendaritzarekin eta hainbat bilera izan arren, ez dira adostasunera heldu.

Bi dira, batez ere, desadostasuna eragin duten puntuak. Batek, jai egun berezietarako derri-gorrezko txandak ezarri nahi ditu enpresak. Jai egun berezi horiek urtarilaren 6a, eta Pazkoetako domeka bezalako egunak dira; urtean zazpiren bat.

Langileek, txanda boluntarioak nahi dituzte egun horietarako, gaur egun bezala, ez derri-gortuak. Horrez gain, domeka eta

jai egun arruntak libratzea nahi dute, horretarako jende gehiago kontratatuz, Izaro Aperribai langileen ordezkararen esanetan.

Desadostasuna eragin duen bigarren puntuak ere lan egutegiarekin du zerikusia. Langileek zapatuak libratzen hastea nahi dute. Euren proposamena hau da: abendura arte geratzen den denboran 10 zapatu lan egitea, 2003an 18 eta 2004rako guztiak libratzea. Enpresak, aldiz, 2005 urtera arteko proposamena egin die, urte horretan oraindik ere 12 zapatu bakarrik libratuz Aperribai aurreratuko duenez.



MONIKA BELASTEGI

Astelehenetik aurrera gutxieneko zerbitzuak soilik egongo dira kaleak garbitzeko.

GIZARTEA/ Udalak 19.989 euro bideratu ditu aurten laguntza horiendako

Gizarte Zerbitzuen arloan ari diren taldeendako laguntzak

MONIKA BELASTEGI

Gizarte Zerbitzuen arloan diharduten elkarteendako diru laguntzak banatzeko oinarriak onartu ditu Udalak. 19.989 euro izendatu ditu aurten laguntza horientzako. Onuradun izanteko, eskaerak Udalean aurkeztu beharko dira maiatzaren 3a baino lehen.

Dirulaguntza horiek jasotzeko ezinbesteko baldintza da legalki araututako elkarteak izatea, irabazi asmorik gabekoa eta gizarte zerbitzuen arloan jardutea. Horrez gain, zerbitzu horiek Bergaran, Debagoienean edo Gipuzkoan garatu beharra dago udaleko laguntza horien onuradun izateko.

Bestalde, elkarte horien jarduerak honako baldintzak ere bete beharko dituzte: batetik, zuzenean erantzutea gizarte integratzeko zailtasunak dituzten udalerriko edozein talderen eskaerei; bestetik, herritarrengan elkartasuna bultzatu beharko dute, gizarte integratzeko zailtasunak dituzten herritarren integrazioa errazteko; eta, azkenik,



ARTXIBOA

Dirulaguntzen helburua da biztanleei zuzendutako jarduerak finantzatzen laguntzea

integrazio arazoak dituztenen partehartzea ere bultzatu beharko dute elkarteak antolatutako jardueretan.

ESKAERAK EGITEKO EPE MUGATUA

Eskaerak Udalean egin beharko dira, asteleheneetik egubakoitzean 09:00etatik 13:00etara, eta maia-

tzaren 3a izango da eskaerok egiteko azken eguna.

Aurten 19.989 euro zuzendu ditu Udalak laguntza horiendako, iaz baino 823 euro gehiago. Iaz 19.166 euro bideratu zituen eta bederatzi taldek jaso zuten laguntza hori, besteak beste Odol Emaleen Elkarteak eta ASPACEK.



Unedek bi titulazio berri eskainiko ditu

Bergarako Uned zentroak Ingenieria Informatiko lizentziatura eta Turismo diplomatura eskainiko ditu datorren ikasturtetik aurrera. Bi ikasketa berri horiekin, hogeita zazpi dira Bergarako Unedek eskaintzen dituen ikasketak.

Datorren ikasturteko berrikuntzen artean, Internet bidez jarraitu ahal izango diren ikasketak kopurua dago; 14 titulazio jarraitzeko aukera egongo da, eta bi urteren barruan karrera guztiak egongo ei dira sarean.

ARRANO



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

PANTI
15 URTE
ESPETXEAN

Euskal
presoak
Euskal
Herrira!

BEHEKO
TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tf.: 943 76 55 74

LABUR

Dementzien gaineko informazio zabaltzeko jardunaldiak antolatu ditu AFAGI elkarteak

AFAGI elkarteak dementzien gaineko informazioa zabaltzeko jardunaldiak antolatu ditu. Honako gaiak jorratuko dira, besteak beste jardunaldi horietan: dementzia duen gaixoaren etxean zer gertatzen den azalduko dute, dementzia duen gaixoarekin-bizitzeko gomendioak emango dituzte, eta baita gizarteak familiei eskaintzen dizkien zerbitzuak zein diren ere ezagutzera eman.

AFAGIren jardunaldiak apirilaren 24 eta 25ean izango dira, 16:00etan, Errotalde kultura etxean, eta parte hartzea dohainekoa izango da.

Xabier Oregi "Panti"ren omenezko ekitaldi gehiago egongo dira asteburu honetan

Xabier Oregi "Panti" kartzelan hamabost urte bete dituela eta Etxerategi giza katea eta omenaldia egingo dio gaur, egubakoitza, 20:00etan San Martin plazan. Horrez gain, 22:30ean, Benito Lertxundiren emanaldia ere izango da Udal Pilotalekuan "Panti" omenezko antolatu duten ekitaldi sortaren barruan. Sarrerak honako toki hauetan daude salgai: Pol-Pol, Arrano, Ariznoa, Avenida, Kortazar eta Txuringo tabernetan eta Etxepare liburu dendan.

Bestalde, domekan, 09:00etan mendi martxa eta eguerdian bazkaria izango da Gorlan. Izena Pol-Pol eta Arranon eman daiteke.

'Batzen' aldizkariaren lehenengo zenbakia argitaratu du Batasuna taldeak

Bergarako Batasunak *Batzen* aldizkariaren lehen zenbakia kaleratu berri du. Aldizkariak Udaleko gaiak, herriko pertsonai bati elkarrizketa (Maite Aristegi lehenengo zenbaki honetan) eta Bergara zein bergararrekin lotura duten beste hainbat gai jorratzen ditu. Batasunak bi hilean behin kaleratuko du aldizkaria, beraz, hurrengo alea ekainean banatuko dute.

Dohaineko Internet ikastaroa Ipintzan, 35-55 urte arteko emakume langabetuendako

Astelehenean hasiko da ikastaroa eta Eskolak egunero izango dira, 15:00etatik 17:00 etara, maiatzaren 8ra arte. Bestalde, dohainekoa da, Aldundiko Ekonomia departamentuak, Europako Gizarte Fondeoak eta Emakunde finantziatutakoa delako. Interesatuak Ipintza institutuan eman dezakete izena 943 763142 telefonoan, bulego orduetan, 09:00etatik 14:00etara.

Iturria: "DIARIO DEL MOTOR" aldizkaria

DIARIO DEL MOTOR

NOTICIAS • MERCADO • INDUSTRIA • ENTREVISTAS • NOVEDADES • CIRCUIT



FORD FOCUS, FIDAGARRITASUNEAN AURRENA

Alemanian, Ford Focus autoa liderra da kalitatean eta fidagarritasunean. Horixe dio automobilaren industriaren kontrol ikuskapena eta gainbegiratzeko teknikoak egiten dituen TÜV erakundearen urteko txostenak. Era berean, txosten horrek dio Ford Focus autoak presentzia geroago eta handiagoa duela Europako errepideetan eta geroago eta presentzia txikiagoa tailerretan. Hainbat frogak egin eta gero, emaitza izan da Ford Focus autoak ehuneko bateko akats portzentajea besterik ez duela; azken hamar urteotan TÜV erakundeak erregistratu duen

portzentajerik txikiena. TÜV txostena erabilitako autoen inguruko informazio gida bat da. Txosten horrek autoak sailkatzen ditu "akats txiki" eta "akats nagusi" arabera. Nahiz eta Japoniarrak oraindik ere talde nagusiaren izan "akats txiki"-etan, aurretik, Ford Focus autoarekin, Alemaniako fabrikatzaile batek lehen postua lortu du urte bat eta hiru urteko antzinatasuna duten autoen artean. Ondorengo antzinatasun taldeetan Toyotak du lidertza. Eta Mercedes SL da lehena 8 eta 9 eta 10 eta 11 urte bitarteko antzinatasuna duten taldeetan.

Araba etorbidea • ARRASATE • 943 79 07 44

ELKARRIZKETA

KIKE AMUNARRIZ/SOZIOLINGUISTA

“Euskarari, gazte hizkera hiritarra eta orokorra falta izan zaio duela gutxi arte”

MONIKA BELASTEGI

Hilaren 25ean (eguna), *Eske hau superguaya da* berbaldia egingo du Kike Amunarrizek herriko kultura etxean, 19:00etan, Jardun elkarteak antolatuta. Berbaldiaren mamia aurreratu digu Kike Amunarrizek berak.

Eske hau superguaya da eta horren tankerako espresioak adin tarte zehatz baten kontua dela imajinatzen dut.


Horren tankerako espresioak adin tarte gazteei dagozkie, baina ez da erraza adina mugatzea: ume txikiei ere entzungo diezu batzuetan *guay* berba bera, eta giro eta leku batzuetan 30 urte gorako jendeak ere badarabil.

Nolanahi ere, esango genuke era horretako espresioak *gazte hizkera*-ri dagozkiola.

Euskarari, gazte hizkera hiritarra eta orokorra falta izan zaio. Duela 25 urte arte, euskara, batez ere, herri txikietan eta nekazaritza giroan berba egin izan dute; Euskara Batua sortu aurretik euskaldunen arteko ulermena bera arazo zen; euskara eskole-tatik eta komunikabideetatik kanpo egon da guztiz... Azken urteetan, aldiz, euskara zabaldutako neurrian, *gazte hizkera hiritarra* sortzen hasi da, baina euskararen aldekoak ez diren baldintza soziolinguistikoetan. **Zergatik erabili behar izaten dira beste hizkuntza bateko maileguak horrelako espresioetarako?**

Arazoa ez da sormen gaitasun falta edo euskarak horrelakorik ez izatea. Arazoa, euskararen eza-gupen maila eta erabilera dentsitateak dira. Erdara milioika gazteren eguneroko erabilera-hizkuntza da, eta gazteok berehiz *hizkera* dute, eta gainera, hizkera hori zabaltzeko medio guztiak: telebista, musika, irriatiak,....

Euskal Herrian, komunika-



bideen kontsumoaren %95 erdaraz egiten da; gazteen artean euskara kaleko hizkuntza nagusia (%50 baino gehiago) den 5.000 biztanletik gorako herriak ez dira dozenara iristen; euskararen hedaturaren ondorioz, geroago eta gehiago dira -zorionez- jatorri erdalduneko gazteak...

Horrek esan nahi du prozesu baten gaudela eta, ezagupena eta erabilera zabaltzen diren neurrian, gazte hizkera indartuz, sendotuz eta zabalduz joango dela.

Azken baten, gazteek darabilten hizkera jasotzen duten eragin linguistikoaren arabera da. Batua, euskalkiak, gaztelania eta ingelesa zein proportzio-

rekin, mailarekin eta intentsitatekin jasotzen dituzten, horren arabera hizkera erabiliko dute. **Esamolde horiek bilatzerakoan, Euskara Batura ala euskalkietara jo beharko genuke?**

Mitxelena zioen moduan, 'aldi eta alde guztietako euskara' hartu behar da aintzat. Baina ez hori bakarrik, sortu ere sortu beharko dira.

Egin kontu hizkuntza gauza bizia dela, aldakorra, dinamikoa, garaian garaiko errealitatea interpretatzeko ere balio behar duena. Euskaldunon erreferentzia, mundua, aldatuz doan neurrian, euskarak ere erantzun egin beharko

“Mundua aldatuz doan neurrian, euskarak erantzun egin behar dio aldaketa horri”

“Hizkuntzaren transmisioan hutsuneak daudela ageri dute guaya da moduko esamoldeek”

“Belaunaldien arteko borroka hizkuntza barruan ari da gertatzen, eta hori oso positiboa da”

dio aldaketa horri. Hori dela eta, oso garrantzitsua da hizkuntzaren sorkuntzarako ahalik eta baliabide sendoenak eskaintzea umei eta gazteei.

Euskararen kalitatea txarre- ra egiten ari den seinale da eske hau superguaya da esamoldea erabiltzea?

Esamolde horrek, bere baitan, alderdi baikorrak eta ezkor- rakk batzen ditu.

Begira, ni tolosarra naiz, eta orain dela 25 urte, gazteen artean ez zegoen euskaraz ari zen koadrila bakar bat ere. Denak gaztelaniaz aritzen ginen. Gaur egun, berriz, horrelako esaldiak barra-barra entzuten dira, baina

ume eta gazte gehienak euskaraz ari dira kalean!

Kantitatean irabazi dugu, eta kalitatean ditugun hutsuneak azaldu zaizkigu. Dena dela, erabilera mota hori non eta noiz egiten duten jakin behar da.

Horrelako esaldiak, normalean, egoera jakinetan erabiltzen dituzte gazteek: erabilera informaletan. Gehienek euskarazko azterketak ondo egiten dituzte, eta idazlanak egin behar badituzte, ez dute erregistro horretan idazten, erregistro batu landuan baik. Esaldi horiek, hortaz, *gazte- en hizkera*-ri dagozkio.

Ezin dugu ahaztu gazte horien gehienengoa erdararen presentzia eta presioa oso handia dela, eta oraintxe hasi garela atzera euskararen erabilera berreskuratzen herri ertainetan eta hirietan. Eta horren ondorioz, *gazte hizkera hiritarra* ere oraintxe ari dela sendotzen eta komunikabideetatik zabaltzen.

Hizkuntzaren transmisioan hutsuneak daudela ageri dute esamolde horiek, eta oraindik ere gazte hizkera hiritarra osatzeko hutsune espresibo handiak dituztela, eta euskarazko erreferentzia erabilgarri eta orokorrak falta direla.

Baina bestalde, belaunaldien arteko borroka hizkuntzaren barnean ari dela gertatzen ere adierazten digute, eta hori oso positiboa zen, lehen borroka hori euskararen eta erdararen artean gertatzen zen-eta.

Zein da irtenbidea?

Umeek eta gazteek ahalik eta euskara maila onena lortzea eta ahalik eta erregistro gehien jakitea, irakaskuntzan eta familian. Umeen eta gazteen ingurunea ahalik eta euskaldunena izatea eta kultura kontsumoan eta kultura eta kirol zerbitzuen erabileran euskararen presentzia orokortzea, bai eta komunikabideetan gazte hizkera erregistro gisa landu eta sozializatzea ere.

REMENTERIA Altzariak

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan

Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

Bergarako Udala



Bergarako Udala udal pilotalekuari erantsitako tabernaren ustiaketa adjudikatzerara doa.

Eskaintzak aurkezteko epea 2002ko maiatzaren 3ko 13:00etan bukatuko da.

Pleguak eta informazio gehigarria Idazkaritzan eta Kirol Zerbitzuan, hurrenez hurren.

Alkatea.

Bergarako Udala



Bergarako Udalak lehiaketa-oposizio bidez, behin-behineko kontratuarekin, brigadarako Ofizial Elektrikari bat kontratatzerara doa.

Izangaien baldintzak

- Eskola Graduatua, Lanbide Hezkuntza I edo parekoa den titulazio maila izatea.

- Euskara 1. Hizkuntza Eskakizuna, derrigorrezkoa.

Instantziak aurkezteko epea

2000ko maiatzaren 3ko eguerdiko 13.30ak arte.

Oinarriak Udaletxeko Idazkaritzako bulegoetan.

Alkatea.



TXORIMALO LEHIAKETAKOAK PATINATZEN

Erramu Zapatu egunean Jardunek antolatutako txorimalo lehiaketa irabazi zuten 14 urtetik beherako lagunak patinatzerara joan ziren Gasteizera joan zen zapatu arratsaldean. 23 gaztetxo joan ziren, guztira: Eider Larrañaga, Amaia Azpeitia, Lorea Larrañaga eta Jone Albenizen taldetako kideak, hain zuzen ere. Nahikoa ipurdiko hartu zuen batek baino gehiagok, baina ondo pasatu zutela, behintzat, ezin ukañu!



KUADRILLATEGIKOAK GALARTZAN

Zapaturo elkartzen dira Kuadrillategikoak, eta era guztietako jarduerak egiten dituzte: ikastaroak, jokuak, eskulanak... Joan zen asteburuan Aretxabaletako Galartzako aterpetxera joan ziren, eta Deba eta Aretxabaletako Kuadrillategikoak ezagutzeko aukera izan zuten.

MENDIZALE BETERANOEI OMENALDIA

Emilio Acebo, Patxi Etxaniz, Jabier Mujika eta Patxi Alberdi mendizaleei omenaldi txiki bat egin zieten euren mendiko lagunak. Altzasu elkartean egin zuten bazkaria, baina lehenengo mendi buelta bat ere egin zuten. Bergaratik irten eta Uzarragara abiatu ziren; handik Trekutzera; Trekutzetik Altzasura bazkaltzera, eta bazkalostean Bergarara jaitsi ziren. Guztira, 45 lagun elkartu ziren lehen aipatutako laukoteari omenaldia egitera! Bizitza osoan mendian ibili eta gero, oraindik sasoiko daudela argi laga zuten, eta horrelaxe jarraitu dezatela, gainera!



GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

ezpeleta
Ostalaritzarako
ehungintza

Ostalaritza eta
egoitzetarako
mahai-zapi eta
industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77
Tf. eta faxa: 943 76 17 09

Agirrebeña

JATETXEA



Ibarra kalea 2 • Bergara • Tf. 943 76 20 38

BERGARARRAK MUNDUAN

OLATZ AZKONDO

27 URTE / SUKALDE LAGUNTZAILEA / FUERTEVENTURA

“Oraingo, behintzat, ez daukat Bergarara itzultzeko batere gogorik”

AINTZANE IRIZAR

Badira bi urte eta erdi Bergararik kanpora bizi izatera joan zela. Garai hartan, bost urte zihuan Pol-Pol tabernan lanean: “Lagun batek deitu zidan, ea denboraldi baterako kanpora joateko gogorik neukan galdezka; hasiera baten, ezetz erantzun nion, baina handik bost minutura baietz esateko deitu nion berriro”, gogoratzen du Olatzek.

Erabakia hartu eta hiru astera Fuertenventuran zegoen Olatz. Hara iritsi bezain laster, jatetxe baten eta kafetegi baten hasi zen lanean.

Esan bezala, bi urte eta erdi daramatza Olatzek Kanariar Uharteetan. Bien bitartean, baina, bederatzita hilabete eman ditu handik kanpora. Lehendabizi, Alemaniara joan zen lagunekin, furgoneta bat erostera; handik Bergarara etorri ziren; furgoneta matrikulatu, eta Holandara abiatu ziren. Pare bat hilabete eman zituzten Holandan: tulipanen bulboak prestatzen eta gazta lantegi baten ibili ziren lanean. “Holandatik Danimarkara joan ginen: han pinuak inausten ibili ginen”, gogoratzen du Olatzek.



Denbora horretan, furgonetan bizi izan ziren: “Hori oso gogorra izan zen”, azaldu digu Olatzek.

Orain, bi hilabete daramatza berriro Fuerteventuran bizi izaten. Jatetxe baten dihardu lanean, sukaldeko laguntzaile moduan. Alboko

“Badirudi eguzkiak indarra ematen didala; oso gustura nago hemen”

herri txiki baten bizi da, Lajares-en, hain zuzen ere, beste bi lagun euskaldunekin.

Euskal Herriko poteoaren hutsunea nabaritzen du, gehienbat, Olatzek. Baina oro har, oso gustura dago Fuerteventuran: “Badirudi eguzkiak indarra ematen didala; oso gustura nago hemen”.

Etorkizunaren gainean galdetu diogunean, zera esan digu Olatzek: “Oraingo, behintzat, ez daukat Bergarara itzultzeko batere gogorik; dena dela, beharbada, hemendik denbora batera...”

MINGAINARITIRAKA



Amaia Zabala

AMAIA PERFUMERIXAKUA

Amaiak 29 urte dauzka. Estetika ikasketak egin zittuan. Oin dala zazpi urtetik hona, Amaia perfumerixia dauka. Zinia eta futbola die Amaiazen zaletasun haundixenak.

Ze gustatzen jatzu gehixen zure lanian?

Jentiakin harremana eukitzia, batez be; bestetik, nik ikasitako horretan lan egiten dotela.

Eta gutxien?

Ba, egixa esan, ez dakit. Gustura nago nere lanakin.

Estetizistia izanda, zure fisikua asko zainduko dozu, ezta?

Bai, gustatzen jat zaintzia, baiña gehixegi be ez.

Perfume bat aukeratzekotan?

Asko aldatzen dot perfumia; gustatu egiten jat aldatzia. Oin, esaterako, Amarierekin nabil.

Ze zaletasun daukazu?

Zinera jutia eta kirolak; futbolzalia naiz, batez be.

Ze ekiporen jarraitzaillia zara?

Realarena; *forfo* samarra naiz, gainera; bazkidia naiz.

Zela ikusten dozu Realaren egoeria?

Zailla izango da, baiña uste dot mailliarri eusteko gai izango dala azkenian.

Pelikula bat?

Gustoko pelikula asko dauzkat, baiña bat esatekotan, *La ventana indiscreta*, Alfred Hitchcock-ena.

Zela defniduko ziñuke zure burua?

Pertsona umilla eta lotsati samarra.

Bizi izateko toki bat?

Bergaran gustura nago.

Ze falta da Bergaran?

Zine areto hobia.

Loterixia tokatzekotan, ze egingo ziñuke?

Bidaia eder bat.

AINTZANE IRIZAR

NIRE BIDAIA HURA / Eñaut Uriarte

SANTIAGOKO BIDEA / 1998ko uztaila

Aspalditik geneukan Santiagoko bidea oinez egiteko gogoia aitak eta biok. Amari ere esan genion, baina ez zen animatu, beraz, aukera izan genuenean, biok joan ginen.

Orreagatik irten ginen; euripean hasi genuen bidea, baina berehala jaso zuen eta primerako eguraldia izan genuen gainerako egunetan. Hogeita lau egun behar izan genituen ibilbide osoa egiteko; egunean, batazbeste, hogeitak kilometro egiten genuen. Dena dela, egunaren arabera izaten zen; izan ere, berrogeita hamar kilometro egin genuen egunik ere izan zen.

Arazo fisikorik batere ez genuen izan. Hori bai, Santiagoko bidea egin nahi duenak kontuan izan beharko lituzke gauza batzuk: ahalik eta gauza gutxien eraman behar dela bizkarrean eta oinetako egokiak eraman behar direla. Nire ustez, zapatilekin joatea da onena. Bestela, *egosi* egiten dira hankak.

Bidean albergetan lo egiten genuen. Ibilbidearen hasieran kredentzialak ematen dizkiete Santiago bidea egitera doazenei; kredentzial horiekin, kasu askotan, ez da ezertxo ere ordaindu behar izaten albergetan, eta ordaintzekotan ere, ezer gutxi.

Oso esperientzia polita izan zen. Pasaia aldetik, Galizia eta Nafarroa gustatu zitzaizkidan gehien. Burgosetik aurrerako bidea oso laua da. Bierzo eskualdea ere, Leonen, asko gustatu zitzaidan.

Bestetik, azpimarratzekoa da zenbat jende ezagutzen den bidean. Era guztietako eta toki guztietako jendea ezagutzen duzu. Espainiako estatukoak gehienak, baina urrutitik ere jende mordoa etortzen da. Duda barik, edozeini gomendatzeko moduko bidaia da, ekonomikoa, gainera. Badaukat berriro joateko gogoia!



“Egunean, batazbeste, 20 kilometro egiten genuen”

“Era eta toki guztietako jendea ezagutzen duzu”

AINTZANE IRIZAR



Eñaut, bidean topatu zuten eserleku baten atsedean hartzen.

GABILONDO
INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak, baserriak, lur sailak...


Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67

Ganbara

TABERNA

Heure erara ibiltzeko!

Irala z/g.
BERGARA
Tel. 943 76 55 75



Ur-bide
ITURGINTZA

Zubieta, 28-behea. BERGARA. 943 76 00 57. 630 261 617

PILOTA


Amateur mailako pilotari onenak Bergara Hiria Pilota Txapelketan

Ekainaren 18a bitartean, martitzenero partiduak izango dira Udal Pilotalekuan

EDU MENDIBIL

Martitzenean abian jarri zen Bergara Hiria Pilota Txapelketako VII. ekitaldia. Bergara KEko Pilota Sailak promes eta amateur mailako pilotari onenen partaidetza lortu du aurten ere. Ohikoa denez, txapelketa kanporaketa sistema jarraituta jokatu da.

Martitzenean, amateur mailako lehen partiduak jokatu zituzten Udal Pilotalekuan: Arantzetak eta Casadok 22-6 irabazi zieten Errasti anaiei eta Erroizenea eta Oteiza 22-9 nagusitu ziren Onar Muguruzaren eta Arrietaren kontra. Datorren astetik aurrera, final-laurdeneko partiduak jokatu dituzte. Martitzenean, hilaren 23an, ondoko partiduak izango dira, 19:30ean: promes mailan Txurrukak eta Iruretak Botoren eta Etxebarriaren aurka jokatuko dute eta amateurretan, berriz, Eguzkitza eta Igor Gutiérrez beragararrak Arantzetaren eta Casadoren aurka jokatuko dute.



Casadok eta Arantzetak final laurdenetarako txartela lortu zuten martitzenean.

BERGARAKO HIRU PELOTARI

Igor Gutiérrezekin batera, Ander Muguruza eta Iker Azagirre izango dira herriko beste bi ordezkariak. Gutiérrezekin eta Muguruzak Udaberriko Txapelketa eta Debarrokoa irabazi dituzte aurten, baina ez dute elkarrekin jokatu. Ander Muguruzak Argote zarauztarrarekin batera arituko da. Maia-

tzaren 7an jokatu dute final-laurdeneko partidua, Azpiroz-Iriarte bikotearen aurka, hain zuten.

Iker Azagirre ere bikain ari da aurten. Elgetako taldea ordezkatuta, Debarroko Binakako Txapelketan gazte mailako finalera iritsi zen, baina Eskoriatzako bikotearen aurka galdu zuten.

Bergara Hiria Txapelketan, promes mailan, Errarte eskoriatzarrak izango du lagun Ikerrek. Final-laurdenetako partidua apirilaren 30ean jokatu dute, Lagos eta Arraztoa nafarren aurka.

Txapelketako finalerdiak ekainaren 4an eta 11n izango dira eta finalak ekainaren 18an.

Lokatzako txirrindulariak hasi dira lasterketetan dagoeneko

E.M.

Lokatza Ziklismo Eskolako txirrindulariek oraingo denboraldia hasi dute dagoeneko. Aurten, 15 lagunek dihardute Lokatzen. Taldeko arduradunak ilusioarekin dira hasi berri den denboraldiari begira.

Mikel Larrañaga Lokatzako presidentearen esanetan, "gero eta nabarmenagoa da lizentzia kopuruak behera egin duela azken urteotan, baina guretako oso pozgarria da infantil taldean bederatz lagun izatea. Joan den urtean, infantil mailako bi txirrindulari besterik ez genuen eta aurten gorakada nabaria egon da. Horrek asko animatu gaitu".

Hauek osatzen dute infantil taldea (argazkian, ezkerretik eskumara): Eneko Maguregi elgetarra, Ekaitz Horrillo, Urko Sánchez, Ander Mengual, Asier Penabad, Joseba Muguruza, Gorka Artola eta Igor Molano. Argazkian Aitor Bolinaga falta da. Bestalde, Miguel Angel Lazpiur eta Jose Mari Gabilondo ibiliko dira zuzendari lanetan.

Beheko argazkian, berriz, hauek agertzen dira: Gurutz Larrea antzuolarra (lehen urteko kadetea), Ibai Zornotza eta Unai Arantzabal (bigarren urteko kadeteak) eta Iñaki Calvo, Iñigo Larrañaga eta Kepa Varela gazte mailako txirrindulariak. Kadeteen zuzendariak Iñigo Arzelus eta Xabier Plazaola dira eta gazte mailakoekin Luis Miguel De Benito ibiliko da.


BERGARAN HAINBAT PROBA

Infantil mailakoek Elgoibarren izango dute proba aste bukaeran eta gazte mailakoek zapatuan Zarautzen eta domekan Intxaurrondon korrituko dute.

Bestalde, Bergaran hainbat proba jokatu dira: maiatzaren 1ean, kadeteen lasterketa Labe-garrietan; maiatzaren 4an, infantilen proba; ekainaren 16an, bigarren urteko kadeteen Gipuzkoako Txapelketa, San Antonion; eta uztailaren 20an, gazteen Santa Marina saria. Era berean, Lehendakari Txapelketako probak izango dira Pazkoetan, maiatzaren 19an, eta San Martinetan, irailaren 20an.



Lokatzaoko infantil taldean bederatz gaztetxok dihardute.



Kadeteak eta gazte mailako txirrindulariak.

FOTOKIROLA



Senior eskubaloi taldea, lider

Senior mailako eskubaloi taldeak 33-24 irabazi zion zapatuan Muskiz taldeari, Labe-garrietan. Bigarren maila nazionalera igotzeko ligaxkan lehenak dira mahoneroak. Jokatu dute lau partiduetatik, hiru irabazi eta bakarra galdu dute Edu Orgazen mutilek. Zapatuan, oso partidu ona egin zuten. Garikoitz Arregi izan zen golegile nagusia (7 gol). Asteburuan, lehen itzulerako azken partidua jokatu dute, Sestaon. /E.M.

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

EMAITZAK

KOPA TXAPELKETA

Aterpe-Mongatxurak	7-6
Eri-Bar Canalejas	4-4
Artusamak-THT	6-1

LIGA TXAPELKETA

Bayer-Argandolas	3-4
------------------	-----

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

17:30: Bayer-Kanpazar. Antolaketa

DOMEKAN, BARRUAN

11:30: Bar Ugarte-Canalejas. Antolaketa

16:00: A Ze Flaxa-Aterpe. Artusamak

17:00: Artusamak-Argandolas. A Ze Flaxa

ARGI IBILI!

LIGAKO FINALERDIAK

Liga txapelketako finalerdiak jokatuko dira astebukaeran. Domeka goizean Bar Ugarte eta Bar Canalejas izango dira aurrez aurre, eta arratsaldean Artusamak eta Argandolas taldeek jokatuko dute beste finalerdia. Bar Ugarte eta Artusamak dira finalera iristeko faboritoak. Bar Ugartekoak iazko txapelketan kopa zein ligako finalerdiara heldu ziren eta Artusamak taldeak sasoi betearen dagoela azaldu du.

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. A Ze Flaxa	9	3
2. Agirrebeña jatetxea	7	3
3. Kanpazar Harrobia	6	4
4. Bar Ugarte	6	4
5. Torrekua	5	4
6. Komando Piperrak	5	4
7. Amilotx	4	3
8. Eri	4	4
9. Mongatxurak	4	4
10. Biciprecisión Igartua	3	4
11. Bar Ganbara	0	3

B MULTZOA

	P	J
1. Amoskibar	8	4
2. Irubide jatetxea	8	4
3. Vacalouras	7	4
4. Bar Canalejas	7	4
5. Aterpe	6	2
6. Bar Bedarreta	6	2
7. Artekale pizzeria	3	4
8. T.H.T	3	3
9. Etengabe	0	4
10. Txipiron	-3	3

C MULTZOA

	P	J
1. Errotagain	9	3
2. Dedo Pafarru	6	3
3. Artusamak	6	3
4. Pagomendi	6	3
5. Bildurbarek Opel Lam	3	4
6. Bayer	3	2
7. Patxaran Team	3	3
8. Aluminios Kresala	3	3
9. Timofonika Team	0	3
10. Ortzí	0	1

FOTOKIROLA



Iker Ozkoidi garaile Gorlan

Iker Ozkoidik irabazi zuen domekan Gorlan jokatutako Txakur Leren Lasterketa. Eguraldi txarra zela eta, antolatzaileek uste zutena baino partaidetza eskasagoa izan zen aurten go egitaldian. Hogeita bat partaide ibili ziren lehian. Ozkoidik 6 txakurrekin hartu zuen parte eta 21 minutu eta 49 segundoko denbora egin zuen. Jarraian, Jesus Raigoso (21:54), Juan Carlos Quintana (22:32), Andoni Azpillaga (23:21) eta Roberto Pro iazko irabazlea (24:11) sailkatu ziren. /E.M.

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Bergara-Aurrera Ondarroa
Lehen erregionala. Zapatua. 12:30. Agorrosin.

Bergara-Mondra
Ohorezko mailako gazteak. Zapatua. 16:30. Ipintza.

Bergara-Santo Tomás Lizeoa
Infantilak. Domeka. 10:00. Ipintza.

Bergara-Hernani
Ohorezko mail. kadeteak. Domeka. 11:30. Ipintza

SASKIBALOA

Bergara-Kostkas
Senior mutilak. Zapatua. 16:00. Kiroldegia.

Bergara-Zarautz
Kadete mutilak. Domeka. 10:30. Mariaren Lagundia.

PILOTA

Bergara Hiria Txapelketa
Martitzena. 19:30. Udal Pilotalekua.

EMAITZAK

FUTBOLA

Bergara 3 Beti Ona 1 (Preferente maila)

Tolosaldea 3 Bergara 1 (Lehen erregionala)

Bergara 2 Zarautz 0 (Neskak)

Sto. Tomas Lizeoa 3 Bergara 2 (Oh. m. gazteak)

Bergara 0 Aur. Ondarroa 2 (Lehen mail. gazteak)

Aur. Ondarroa 2 Bergara 0 (Oho. mail. kadeteak)

Bergara 1 Urki 2 (Bigarren mail. kadeteak)

Bergara 8 Behobia 0 (Infantilak)

ESKUBALOA

Bergara 33 Muskiz 24 (Senior mutilak)

Arrasate 25 Bergara 31 (Gazte mutilak)

SASKIBALOA

Alde Zaharra 57 Bergara 66 (Senior mutilak)

Bergara 38 Iraurgi 41 (Gazte mutilak)

Andraitz 43 Bergara 46 (Kadete mutilak)

PILOTA


Bergara Hiria Txapelketa

Arantzeta-Casado 22 Unai eta Ibon Errasti 6

Erroizenea-Oteiza 22 Muguruza-Arrieta 9



ARTXIBOA



IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK

MOKETA ETA SINTASOLA

IZTUKU ESPONJATUA

PAPER PINTATUAK

HAREA ZORROTADA

IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32

GURIDI altzariak

Era guztietako
altzariak

Artekalea 8. BERGARA
Tel. 943 76 31 02



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

Bederatzi taldek hartuko dute parte Taun-Taunek bi urtean behin antolatzen duen nagusiendako txotxongilo jaialdian

Mundu guztiko txotxongiloak, maiatzaren 2tik 5era, Helduendako VI. Mostran

MONIKA BELASTEGI

Maiatzaren 2tik 5era txotxongiloak izango dira nagusi herriko kaleetan eta aretoetan. Izan ere, bi urtean behin egiten du Taun-Taun taldeak Helduendako Nazioarteko Txotxongilo Mostra, eta aurten seigarren aldia beteko du erakusketa horrek.

Nagusiendako VI. Nazioarteko Txotxongilo Mostrarako azken ukituak ematen ari dira Bergarako Taun-Taun antzerki taldeko kideak. Bi urtean behin antolatzen duten mostra maiatzaren 2tik 5era arte izango da gure artean, hutsik egin gabe.

Aurtengoan, mundu zabaleko bederatzi talde izango dira gure artean: Gaztela-Leon, Valentzia, Bulgaria, Erresuma Batu, Argentina, Aragoi, Balear, Kolonbia eta Andaluziako talde bana, hain justu ere.

Horrela, Novedades aretoan, kalean (Errotalde parkean, San Martin plazan eta Espolioan, hain justu ere), Pol-Pol tabernan eta Angiozarren eta Osintxun egingo dituzte emanaldiak, eta guztira, hamar ikuskizunez gozatzeko aukera egongo da.



La Pasonaria lana da (irudian) Helduendako Nazioarteko Txotxongilo Erakusketan ikusi ahal izango den lanetako bat.

BEDERATZI TALDE, HAMAR IKUSKIZUN

Maiatzaren 2an (eguna) hasiko da Nazioarteko Txotxongilo Mostra. Egun horretan, bi lan ikusteko aukera egongo da: 19:00etan, Argentinako El Colchon taldearen *La Celestina del Retablo* kale ikuskizuna; eta 20:00etan, Gaztela-Leongo Alto Teatroren *Silencio*, Novedades aretoan. Argentinako taldearen lanari dagokionez, Fernando de Rojas idazlearen *La Celestina* lan ezagunaren titereendako egokitzapen fresko, umoretsu eta inprobisazioz jositakoa egiten dute. Gaztela-Leongo taldearen lana, berriz, Alejandro Lucas Garciak sortu eta zuzendutakoa da. Oso ikuskizun intimista da, sentimenduez jarduten du eta gure kontrolari ihes egiten dizkioten gauzez. Nor bere barnean zeharko bidaia bat da, azken baten, *Silencio* lana.

Maiatzaren 3an (egubakoitza), beste hiru lanez gozatzeko aukera izango da: batetik, 19:00etan, Aragoiko Arbolé taldeak *Teatro Ambulante* kale ikuskizuna egingo du. Ikuskizun hori txotxongiloendako antzerkiaren tradizio zaharrenean dago oinarrituta: *cachiporra*-n, hain justu ere. Arbolé antzerki ibiltaria berreskuratu du, edozein tokitan antzez daitekeen antzerki ibiltaria, parke baten, plaza baten, kalean... Eta leku bakoitzean errepertorio zaharreneko lanak zein egokita-penak egiten dituzte: *El picaro burlado*, *La casa encantada* edo *Las aventuras de pelegrin*.

Bederatzi talde eta hamar ikuskizun izango dira erakusketaren oinarri

Egun berean, 20:00etan, Valentziako Bambalina taldeak *Pasionaria* lana jokatu du Novedadesen. Aktore eta txotxongiloen-

Kalean, batez ere, baina Novedades aretoan eta Pol-Pol tabernan ere izango dira emanaldiak

dako lana da, eta Dolores Ibarri buruzagi komunistaren bizipenak ditu oinarri. Eta 22:30ean, El Colchon taldeak *La Celestina*

Corrado Masacciren txotxongilo erakusketa ere egongo da, kultura etxean

del Retablo antzetzuko du, bigarrenegoz, Pol-Pol tabernan.

Zapatuan (maiatzak 4), beste hiru lan ikusteko aukera egongo

ITSASO AZKARATE /TAUN-TAUN ANTZERKI TALDEKO KIDEA

"Badira herri batzuk zerbait berezia dutenak antzetzeko orduan; Bergara horietakoa da"

Zein da aurtengo mostraren berezitasun nabarmena?

Taldeak eurak, lehenengoz datoz eta. Horrez gain, aurten, dantza eta txotxongiloak nahasten dituzten lanak ikusiko ditugu. Bestalde, berezia da, era berean, txotxongiloekin lan egiteko oso modu tradizionalak dituzten taldeak etorriko direla.

Azkenik, nabarmen daiteke aurreko aldietan baino kale ikuskizun gehiago ekarri ditugula, kartzela zaharra ezin daiteke eta erabili. **Taldee ezagun egingo zaie dagoeneko Bergarako Txotxongilo Mostra?**

Bai. Badira herri batzuk nahiko bereziak direnak antzetzeko, eta horietako bat Bergara da.



Taldeek ere badakite hona aukeratuak taldeak etortzen direla, eta maiz eskatzen digute etortzeko aukera ematea. Taldeendako curriculum-a da Bergarara etortzea. **Zein talde edo antzezlan nabarmenduko zenuke?**

Oso zaila da. Bakoitzak bere gauza dauka. Novedadesen lau ikuskizun egongo dira, eta 15 eurotako txartelarekin guztiak ikus daitezke. Nik laurak ikusiko nituzke, eta gainerakoak kalean edo Pol-Polen izango direnez, bada, horiek ere bai. Bestalde, garrantzi aldetik, bada, agian, Bambalina taldea aipatuko nuke, gaur egun oso modan dagoen taldea da.

da: 18:30ean, Balear Uharteetako Au Ments taldeak *Las tres llaves* lana eskainiko du San Martin plazan, Amerika Iparraldeko indiarren ipuin baten oinarritutako dantza eta marioneta ikuskizuna, hain justu ere; 20:00etan, Bulgariako Two Hands taldeak *Sueños de Marioneta* eskainiko du Novedades aretoan. Argi beltzak, musikak, esku-txotxongiloek eta objektuen manipulazioak guztiz erakargarria egiten dute bulgariarren ikuskizuna.

Zapatuko emanaldiak bukatzeko, Aragoiko Arbolé taldeak *Trigedias de amor y cuernos* lana eskainiko du Pol-Polen, 22:30ean. *Bubulú*-aren antzerki forma zaharrena berreskuratuz, Valle Inclán-en eta Federico García Lorca-ren bi testu taularatuko dituzte.

Domekan esango du agur Helduendako VI. Nazioarteko Txotxongilo Mostrak, azkeneko hiru taldeekin: 18:30ean, Kolonbiako Palo Q Sea taldeak *Rompe candela* kale ikuskizuna eskainiko du; 20:00etan, Erresuma Batuko Stephen Mottam-ek *In suspension* lana eskainiko du Novedades aretoan; eta ekitaldiak bukatzeko, 22:30ean, La gotera talde andaluziarrek *Historia Triangular* antzezlan eskainiko du Pol-Polen.

TXOTXONGILO ERAKUSKETA

Txotxongilo erakusketarekin bat, Corrado Masacciren *El arte de la marioneta* izeneko erakusketak egongo da ikusgai kultura etxean maiatzaren 2tik 14ra arte.

ELKARRIZKETA

JENNY RANDERSON/GALESKO KULTURA, KIROL ETA HIZKUNTZA MINISTROA

“Hizkuntza kontuetan galestarron aurretik zaudete euskaldunak; badugu zer ikasi”

JULEN ARANGUREN

Galesko gobernuko hainbat ordezkari Euskal Herrian izan ziren joan den astean. Helburua: hemengo egoera eta, batez ere, euskararen egoera gertutik ezagutzera. Eguenean, Bergarako Udaleran hurreratu ziren, euskararen alorrean egiten den lana ikusteko. Ordezkarietako bati elkarrizketa egin genion.

Zergatik etorri zarete Euskal Herrira?

Antzekotasun ugari daude Galesen eta Euskal Herriaren artean: biztanle kopurua antzekoa da, biak herrialde menditsuak dira, bietan ere badaude oso gune industrializatuak, eta euskara eta galesa berba egiten dutenen portzentajea nahiko parekoa da. Zuek aurrerapen galanta egin duzue euskal hizkuntza garatzeko, bai hezkuntzan eta bai administrazioan ere. Hori dela eta, gure asmoa da zuen esperientziatik ikastea, urte asko daramatzazuelako euskararen aldeko ekimenak lantzen.

Euskarak bizi duen egoerarekin alderatuta, zein da galesaren egoera?

Galesa berba egiten dutenak biztanleriaren %20-edo dira.

Non bizi dira galesez berba egiten duten horiek?

Gehienak Galesko ekialdean bizi dira, baina mendebalean jende gutxiago bizi denez, bertan daukagu gales hiztunen portzentaje altuena, eta badira zenbait leku bizilagunen erdiak galesez mintzatzen direnak. Hori horrela izanik, gure helburua leku zehatz horietan hiztunen portzentaje altuari eustea da eta, aldi berean, gure asmoa gales hizkuntza ekialdean garatzea da, Ingalaterrako mugaraino, eta hala egiten ari gara hezkuntza sistemaren bidez; izan ere, gales hizkuntzan heziketa oso arrakastatsua da Galesko ekialdeko gurasoen artean.

Bi egun baino ez dituzue egin Euskal Herrian. Zergatik aukeratu duzue Bergarara etortzea?

Udal horretan ekimen eta esperientzia ugari jarri dituzte abian eguneroko bizitzako mailatan euskararen erabilera arazotzeko. Eta guk Galesen zera ikusi dugu, gure umeei eskolatan galesa ikasi arren, kalera irtean eguneroko bizitzan ez badute galesez egiten, galdu egingo dutela. Bergaran, berriz, gazteek eskolatik irtean direnean euskaraz berba egiten jarraitzen eizate, eta horixe da guk hementik hartu nahi dugun ikasgaia,



MONIKA BELASTEGI

“Aurrerapen galanta egin duzue hizkuntza garatzeko, bai hezkuntzan bai administrazioan”

gero gure herrialdean, Galesen, aplikatu ahal izateko.

Bada ezer Euskal Herrian harritu zaituenik?

Bi herrien artean zenbait desberdintasun daudela ikusi ahal izan dugu. Gu oso kezkatuta gaude etxebizitzak Galesko zenbait lekutan oso garesti daudelako, eta hori arazo handia da, baina

“Oso interesgarria iruditzen zaigu hizkuntzan duzuen ereduakako banaketa”

sorpresa handia hartu dugu hemen etxebizitzak oraindik ere garestiagoak daudela jakin dugunean; hortaz, etxebizitzaren prezioen arazoa bi herrietan daukagu. Dena dela, guk baditugu zuek ez dituzuen zenbait arazo: esate baterako, jende asko galesez berba egiten den lekuetara joaten da bizi izatera, eta gehienetan horiek

“Gazte jendeak aisialdian euskara erabiltzeko planak erabilgarriak izan daitezke guretako”

ez dutenez galesez berba egiten, leku horietan hizkuntza galdu egiten da. Ez dut uste zuek hemen arazo hori daukazuenik. Baina niri, batez ere, asko interesatu zaidana hezkuntzan duzuen ereduakako banaketa da, eta horrek gizartean duen arrakasta. Eta eredu elebiduna da guk orain Galesen helburutzat daukaguna.

Zelan erabiliko duzue euskal esperientzia?

Ziur naiz Euskal Herrira bueltatuko gara eta hemengo esperientzia etengabe erabiliko dugula, hemen badirelako oso ideia onak. Esate baterako, gazte jendeak aisialdian euskara erabiltzeko ekimenak egitea; horiek dira guk hemendik hartu eta han erabil ditzakegun ideia motak. Era berean, badira zenbait egitasmo, behar bada, Galeserako oso baliagarriak ez direnak, baina beti esan dezakegu jendea saiatu dela eta ez duela arrakastarik izan edo, alderantziz, jendeak beste saiakera hori egin duela eta baliagarria izan dela. Guretako, ezagupen hori izatea oso garrantzitsua da, zuek hizkuntza kontuetan arlo askotan gure aurretik zaudetelako.

ZAHARREN ETXETIK



Argazkian, memoria tailerlean ari den talde bat asteleheneko eskolan, Sonia Ulazia pedagogoarekin.

Bizilagunei zuzendutako ekintzak antolatzen dituzte Mizpirualden

EDU MENDIBIL

Mizpirualde egoitzan hainbat ekintza antolatzen dituzte urtean barrena, bizilagunen bizi-kalitatea hobetu eta partaidetza bultzatzeko helburuarekin. Alazne Irazabal gizarte laguntzailearen esanetan, "egoitzari bizitasuna emateko eta egoitza bera herrian integratzeko ahalegiak egiten ditugu".

Alde batetik, astero eskulana, joskintza edo yoga eskolak izaten dira Mizpirualde egoitzan. Ana Orgaz, Olga Parra eta Virginia De Miguel ditugu monitorea, hurrenez hurren. Era berean, azpikontratatu Adindu enpresak memoria taileraren eta orientazio taldearen (dementia dutenenei zuzenduta) arduraduna. Memoria tailerren 18 lagun ari dira, bi taldetan banatuta, eta orientazio taldean, berriz, hamaika lagun dabilta. Horiek ere astero izaten dituzte eskolak, eta gaitasunak manten-

tzeko eta garatzeko ariketak egiten dituzte, aditu talde baten laguntzarekin.

Alazne Irazabal Mizpirualdeko gizarte laguntzailearen hitzetan, "partaidetza kopurua nahiko altua da, kontuan izanik egoiliarren artean elbarri asko daudela eta ondo daudenak kale-

ra irteten direla askotan. Ekintzetan parte hartzen dutenak emakumeak dira nagusiki, baina hori logikoa da, emakumeak gehiago direlako. Mizpirualdeko bizilagunetatik, 70 emakumezkoak dira eta 45 gizezkoak".

BIZI-KALITATEA HOBETU

Irazabalek azpimarratu duenez, "egoitzan dauden bizi-kalitatea hobetzeko urratsak eman nahi ditugu eta, horrez gain, egoitzari berari bizitasuna eman nahi diogu eta, ahal den neurrian, egoitza bera herrian integratzea". Kontuak kontu, hilero jaialdi bat egiten dute hileko urtebetetzeak ospatzeko; hilean behin ere bingo antolatzen dute eta diapositiba emanaldiak eta bideo emanaldiak ere izaten dira. Udaberri eta uda partean, irteerak egiten dituzte. Irabazabalen esanetan, "ekintza asko herriko taldeek antolatzen dituzte urtean barrena, eta hona etortzeko ohitura daukate asko eta asko. Herriarekin bat egiteko, integrazioa lortzeko modu ezin hobea da eta bizilagunek asko eskertzen dute".

Partaidetza bultzatu nahirik

Mizpirualdeko ardura-dunen helburuetako bat bizilagunen partaidetza bultzatzea da, euren iritzia kontuan izateko. Gaur egun, Mizpirualdeko lagun bik dihardute Zuzendaritza batzordean: Eladio Larrañaga eta Hilario Gorriti hain zuzen. Etorkizunean, bizilagunen batzordea sortzeko asmoa dago, bizilagunek presentzia handiagoa izateko.



La Perlara San Joxeperen eskutik

San Joxepek Donostiako La Perlan bainuak hartzeko irteerak antolatu ditu. Bergaratik ondoko egunetan irtengo dira autobusak: maiatzaren 8an, 10ean, 13an, 15ean, 17an, 22an, 24an, 27an eta maiatzaren 29an. Bergaratik irteerak 15:00etan izango dira. Izenematea San Joxepen bertan egin daiteke. Eta bazkide txartela edukitzea beharrezkoa da. Argibide gehiago, 943 76 30 09 telefonoan. Bestalde, apirilaren 30erako Najera eta Santo Domingo bisitatzeko irteera iragarri dute San Joxeekoek. Santo Domingo bisitatu ostean, Najeran bazkalduko dute.

ZAHARREN TXOKOTIK

Elena Garitano

MIZPIRUALDEKO BIZILAGUNA

Urtetan jostuna izan da Elena Garitano, eta erretirata egon arren, oraindik ere josten jarraitzen du. Mizpirualdera iritsi den azken bizilagunetako bat da.

Non ikasi zenuen josten?

Usondon, Gisasola ahizpekin ikasi nuen, gaztetan, eta ia bizi osoa eman dut jostun lanetan. Emakumeendako jantziak egiten nituen: soinekoak, gonak, berokiak, eta abar. Zailena? Alkandorek ematen zidaten lan gehien. Baina denetik egiten nuen, gustura, gainera. Gizonezkoendako jantziak egiten jakin bai, baina emakumeendako bakarrik egiten nuen lan. Sasoi baten, denda gutxi zeuden Bergaran eta jostun asko ginen. Ofizio polita da. Oraindik ere, ahal dudanean, josten ibiltzen naiz, denbora-



pasa. Horrenbeste lan egin eta gero, orain atsedean hartzea tokatzen zait. **Zer moduz hartu zaituzte Mizpirualden?** Hasieran, gogor samarra egin zitzaidan hona etortzea, baina ohituz noa. Lagunak badauzkat eta ondo moldatzen gara elkarrekin.

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ile
apaindegia

edertze gela

disdira

Masterreka, 7. BERGARA
Tf. 943 76 00 55

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Zubillaga 10
ONATI
943 78 24 13

E, TXO!

KUADRILLATEGIKOEN, IKASTAROA

Apirilaren 20an, zapatua, 15:30ean jarri dute hitzordua Kuadrillategi-koek. Zabalotegin Udala Euskalategiak duen egoitzan elkartuko dira, eta ikastaro berezia egingo dute. Masaje eta erlajazio teknikak ikasteko aukera izango dute. Aste osoa ikasten jo ta sua aritu eta gero, ondo etorriko zaie, bai, pixka bat erlajatzeari!

ZINE EMANALDIA GAZTETXEAN

Domekan, 18:00etan, "El tercer hombre" filma eskainiko dute.

Eguaztenean, hilak 24, 22:30ean, "Gato negro, gato blanco" filma eskainiko dute. Domekan, hilak 28, emango dute berriro filma, 18:15ean.

KONTZERTUA ATZERATU EGIN DUTE

Gaurko, egubakoitza, iragarrita zegoen Asier Serrano bakarlariaren kontzertua Bergarako Gaztetzeari. Atzeratu beharra izan dute, baina, eta apirilaren 26an, egubakoitza, eskainiko du kontzertu hori.

Asier Serrano Lorelei taldeko abeslaria izan zen, eta bakarlari gisa dihardu orain. Bakarkako lehen diskoa argitaratu berri du, *Ez esan inori* izenburupean, eta disko horixe aurkeztuko digu datorren egubakoitzean, 22:30ean, gaztetzeari.

EHU-K ANTOLATUTAKO UDAKO IKASTAROAK

Maiatzaren 2an zabalduko dute Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako Udako Ikastaroetan izena emateko epea. Eskaintza zabala izango da, eta ekaina eta iraila bitartean izango dira ikastaroak.

GUREGAIK/ EUSKAL KOOPERANTEAK

Kooperante izateko deialdia egin dute

AINTZANE IRIZAR

Astelehenean aurkeztu zuten Eusko Jaurlaritzako arduradunek "2002ko gazte kooperanteak" programa. Horrela, ehun gazte euskaldun Amerika, Asia eta Afrikara kooperante gisa lan egitera joango dira.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Etxebizitza eta Ongizate Sailek bederatzigarren aldiz jarri dute abian euskal kooperanteen programa hori. Programa horrekin Eusko Jaurlaritzaren helburua da "euskal gazteak sentsibilizatzea, eta Hirugarren Munduarekiko elkartzasuna eta jakinmina piztea", Miren Azkarate Kultura Sailburuaren esanetan.

Euskal Autonomi Erkidegoko gobernuak kanpoko hainbat erakunde abian jarritako proiektuak gauzatzea izango da parte hartzen duten kooperante gazteen zeregina.

HIRU KONTINENTETAN

Afrika, Asia eta Amerikan lan egin beharko dute kooperanteek. Hiru hilabeteko programak izango dira. Programa horretan parte hartu nahi dutenek maiatzaren 2a baino lehen eman behar dute izena.

Maiatzaren 17tik 19ra, berriz, hainbat jardunaldi informatibo egingo dituzte kooperante izango direnendako. Uztailean joango dira lehendabiziko kooperanteak.



Eneritz Ibaguren bergararra, Venezuelan kooperante egon zenean.

ARTXIBOA

LOTSABARIK/ Iñaki Lazpiur

"Nota txarrek planak izorratzen dizkirate"

AINTZANE IRIZAR

Aspalditik geneukan Iñaki elkarrizketatzeko asmoa, baina zeharo lanpetuta ibili da ikasketekin; gurasoek ez ei diote besterik errepikatzen: ikasteko eta ikasteko. Eta badirudi esaneko mutila dela.

• Txikitan, zer izan nahi zenuen?

Suhiltzailea; garai hartan mutil guztiok esaten genuen suhiltzaile izan nahi genuela.

• Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zure burua?

Ahal bada, neure etxean bizi izaten, neska lagunarekin eta lan batekin.

• Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriz?

Ikasteko; nahiko "txapak" dira, gainera, kontu horretan.

• Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.

Nire gurasoekin ez dago balio duen taktikarik; denetik probatu dut, baina ez du batek ere funtzionatzen.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Familiari eta lagunei.

• Zure bertute bat?

Asko hitz egiten dudala.

• Eta hutsune bat?

Hutsunea ere, asko hitz egiten dudala; izan ere, isilik egon behar denean ere, askotan hitz egiten dut eta...

• Zerk amorratzen zaitu?

Eskolako notek; izan ere, nota txarrek plan guztiak izorratzen dizkirate.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Sorbaldak.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Fisikoki, aurpegiari orokorrean; baina izakerari ere garrantzia ematen diot. Ez zait batere gustatzen jende polit eta inozoa, ez ditut aguantatzen.

• Zer egiten duzu seduzitzeko?

Ez dut seduzitzen, saiatu saiatzen naiz, baina...

• Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?

Gelakide batekin...





ADINA: 18 urte • IKASKETAK: Batxilergoa • ZALETASUNAK: Musika entzutea • LIBURU BAT: Ez dut batere irakurtzen
FILM BAT: "El resplandor" • MUSIKA TALDEA: Supercools • KIROL TALDEA: Búrgos futbol taldea

TIRABIRAKA/ Peru Azkarate

7 ezberdintasun:



PAU





BERGARA
Itsaso Igarza
Apirilaren 24an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Iban Marquez
Apirilaren 23an 11 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Aitor Elorriaga
Apirilaren 20an 12 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Mariñe Jauregi
Apirilaren 28an 5 urte.
Urte askotarako!
Amaia eta familiakoak.



BERGARA
Irantzu Casanellas
Apirilaren 22an 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Itziar Casanellas
Apirilaren 25ean 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Oihana Laskurain
Apirilaren 25ean
urtebete. Urte
askotarako! Etxekoak.



ANTZUOLA
Aimar Igarza
Apirilaren 19an 10 urte.
Zorionak! Familiakoak;
batez ere, Nagore.



BERGARA
Maider Oregi
Apirilaren 26an urtebete.
Urte askotarako!
Amaia eta gurasoak.



BERGARA
Ainhoa Etxebarria
Apirilaren 19an 7 urte.
Urte askotarako!
Olatz eta etxeokak.



BERGARA
Mikel Zubizarreta
Apirilaren 23an 2 urte.
Urte askotarako!
Garazi eta etxeokak.



ELGETA
Ainara Aranzeta
Apirilaren 23an urteak.
Zorionak! Etxekoak eta
eskolako lagunak.



Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitzazuz ezusteko ederra! **Doan!**

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxungo

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAn agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzeari komeni da.

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIAREN 20. URTEURRENA



Zabalotegi, 13 • BERGARA
Tel.: 943 76 44 53

berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

Diapositiba emanaldia

"Alegiazko herria", Felipe Uriarteren eskutik

Osteguna, apirilak 25

Goizeko 9:00etan eta 19:00etan, euskaltegian bertan
HERRITAR GUZTIOK GONBIDATUTA ZAUDETE!

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 57
BERGARA



Irala 3. Tf. 943 76 12 35
Matxiategi 34. Tf. 943 76 23 37
BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09

BERGARAN BULEGO BERRIA



BERGARA LEGAZPI
Ibargarai 3. Santikutz 8.
943 76 97 97 943 73 05 25


**10 URTEKO
ESPERIENTZIA!**

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean
erreforma
Pintura zerbitzu osoa
Moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59
Bergara

BONOFOTOA




MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Garai baten San Koloman eta geroago San Antolin ermita ei zegoen leku berean dago baserri hau. Zein da baserriaren izena?

GALDEDEBALDE

1. Zein talderekin batera joko du Bergarako Orkestra Sinfonikoak Pazkuetan?
A/ Golden Apple Quartet.
B/ Donostiako Orfeoia.
C/ Egan.
2. Zein herrialdetakoa da El Colchon txotxongilo taldea?
A/ Mexiko.
B/ Argentina.
C/ Venezuela.
3. Zein izango da Igor Gutiérrezen bikotea Bergara Hiria pilota txapelketan?
A/ Muguruza.
B/ Eguskiza.
C/ Ubera.



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

JUAN MARI CERDEIRArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Juan Mari! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Ezkerrekoa Udaltxean eta eskumakoa San Pedro elizan / Galde debalde: 1-C, 2-B, 3-A.

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Don Rodrigo ardoa

Gorria eta beltza, 75 cl.

0,60 €

100 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



BERGARAKO ZUHAITZAK

Maitasunaren zuhaitza

Cercis siliquastrum

MAITANE ARIZABAETA

Hostoerorkorreko zuhaitza. Enborra irregularra du, eta azala, era berean, zartatua. Adarren azala, aldiz, leuna eta gorrixka da. Hostoak ilegabeak eta bihotz formakoak dira. Loreak apiril eta maiatza bitartean loratzen dira, eta arrosa-bioleta koloreko loreak ematen dituzte. Loreak hostoak baino lehenago irteten dira. Eta fruituak irail eta urria bitartean heltzen dira eta 7-10 cm-ko lekak ematen dituzte.

Mediterranean isurialde mende-baldarrean era naturalean hazi arren, Euskal Herrian herrietako parke, plaza eta lorategitan landatzen dute, apaingarri gisa, bere loreen edertasu-nagatik. Esate baterako, Bergaran Matxiategin ikus ditzakegu.

Bestalde, bere egurra kalitate eskasekoa da, erraz usteldu eta okertzen da-eta. Garai baten, fruituak lehorgarri gisa erabili zituzten eta hostoak entsaladan jaten ziren.

Zuhaitz horri Judas zuhaitza ere deitzen diote; izan ere, Bibliaren arabera, Judas-ek zuhaitz horretan zintzilikatu zuen bere burua.

“Euskal Herrian parke, plaza eta lorategietan landatzen dute, apaingarri gisa”



ARGAZKILARIA

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943.76.53.12

TELEIXA
BILTEGIAK

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraleta)
BERGARA
Tf. 943.76.27.93

AGOITZ

tapiz
denda

Leizariako
San Lorentzo, 25
BERGARA
Tel.: 649.112.675

iRUDI

Erloju denda
Bitxitegia

Ibargarai, 2
BERGARA
943.76.51.65

DEBA
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behea
943.76.21.80 / 943.76.06.37

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko apirilaren 19a / 109. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

Buztinzuri kalean hasi dituzte 44 etxebizitza eraikitze lanak

AINZANE IRIZAR

Duela pare bat aste hasi da Ortuibar eraikuntza enpresa bi etxe multzo eraikitze lanekin. Eskabadorak hasi dira lanean, eta horrekin batera, hainbat bizilagunen kexak ere iritsi zaizkigu. Euren esanetan, zikin-zikin eginda egon dira inguruak, zeharo lokaztuta.

Bi etxe-multzo egingo dituzte Herri Eskolaren aldamenean, Buztinzuri kalean. Guztira, 44 etxebizitza egingo dituzte bi etxe multzo horietan.

Horrela, Sagasti auzoan bukatuta eta bukatzeaz dauden lau etxe-multzoekin batera, auzogune zabala sortuko da.

Ortuibar enpresak egingo ditu etxebizitzok. Horretarako, orain dela pare bat aste hasi ziren dagoeneko eskabadorak lanean, eta horrek kexa bat baino gehiago sortu du bizilagunen artean. Sagasti auzoko bizilagun batek KONTUOLA aldizkarira deitu zuen esanez etxe inguruak zikin-zikin eginda zeudela, lokaztuta, eta "ia etxetik irten ere ezin dugu egin", gaineratu zigun. Orain, baina, azken egunetan euririk egin ez



Orain dela pare bat aste hasi ziren eskabadorak lanean.

duenez, egoera hobean daude etxe inguruak. Dagokionak arazo horri irtenbidea eman beharko liokeela uste dute afektatutako bizilagunek.

PARKEA

Bi etxe multzo horiek eraikitzearekin batera, egunkari saltokiaren aurreko aldean parke txiki bat egokituko du eraikuntza

enpresak, eta zubi bat egin, Buztinzuri eta Ondarre lotuko dituen. Parkea egokitu bai, baina han dagoen irudia ez dute kenduko, hantxe jarraituko du.

HERRITARREN HITZA / Jose Mari Ugalde • Jubilatuen elkarteko presidentea

Nagusien gorabeherak

Apirilaren 8ko astean Madrilen bilera baten elkartu ziren Europako Zaharren zuzendari diren bost edo sei herrialdeetako ardura-dunak. Elkarrizketatu eta nagusien izakeran edo inguruan darabilzkiten harreman edo laguntzak aztertu, eta ahal den neurrian, berdintzeko ahalegina egiteko asmoz.

Europarrak garenaz, senide baikara. Orain dela hilabete, gutxi gorabehera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintza eta Adinekoen Kontseiluak ageri bat atera zuten azalduz zer jokabide hartzeko asmoa zuten jubilatuko edo nagusien

gainean. Eskara egin zuten gure, edo hobeto esanda, herriaren oniritzia jasotzeko eta sinadurak emateko; horrela, lehen aipaturiko bilera horretan ahalik eta bultzakadarik handiena egiteko moduan azaldu zitezten. Herriak ulertu zuen eta sinadura mordska bildu ziren; baina, esan beharra dago gutako askok, nagusien artean behar baino gehiagok, ez ziotela garrantziarik eman.



"Nagusiok ahalegina egin behar dugu gauzak egiteko"

Badirudi gure artean ia izenak jarriak ditugula laguntza hauen beharrea aurkituko direnei; baina hor aukera denok daukagu, eta horrela ez balitz ere, elkarrizketan egin beharko genioke.

Nagusien laguntzari buruz, baliteke ondorengo urteetan aldakuntza nabariak izatea Gizartekintza eta Udalaren artean. Horiek zer izango diren aurrerantzean ikusten joango gara; baina beti

gogoan izan behar dugu ez digutela dena eginda emango, baizik eta hitzak berak esaten dira. Horrek zer esan nahi duen nahiko garbi dago: guk egin beharko dugu ahalegina gauzak egiteko, eta egin ezin dugunean laguntzak emango dizkigute.

Lehen aipatu dudana agiri horrek zerranda luzea jartzen du, nagusiei laguntzak emateko, euren etxean, auzoan edo herrian babestuta bizi daitezten.

Berriro ere lehengo lerrona; hau guztia guk ahalegina egiten badugu, eta uste dut merezi duela, gizarteari hori eta gehiago zor diogulako.

LABUR

Trikitiaren gaineko erakusketa zabalik asteburuan

Bihar, zapatua, eta etzi, domeka, egongo da zabalik trikitiaren gaineko erakusketa, Olanaren etxe aretoan. Egurdiko 12:00etatik 14:00etara, eta 19:00etatik 20:30era egongo da zabalik.

Aintzinako argazkiak eta tresnak, trikitiaren gaineko bibliografia eta abar egongo dira ikusgai erakusketa horretan.

Trikitixa ezagutzeko izena jarri diote erakusketari, eta horixe da helburua: trikitia hobeto ezagutzeko, alegia.

Kukumarro lehiaketa antolatuko dute maiatzarako

Urtero moduan, Kukumarro lehiaketa antolatuko du Udalak San Isidro egunerako. Maiatzaren 18an izango da egun hori; lehiaketan parte hartzeko maiatzaren 10a baino lehen eman behar da izena.

Hiru maila bereiztu dituzte lehiaketan: 12 urte artekoak, 12 urtetik gorakoak eta jubilatukoak. Parte hartzen duten 12 urte arteko neska mutiko guztiei sariak banatuko dizkiete. Gainerakoek kasuan, berriz, 90 euroko saria jasoko dute irabazleek.

Leiho eta balkoietako lore lehiaketa

Udalak lehiaketa hori antolatzen duen zazpigarren aldian da aurtengoa. Udaberria iritsi zaigu eta herriko etxeetako balkoi eta leihoak dotore apainduta izatea da Udalaren helburua lehiaketa horrekin.

Bi sari banatuko dituzte: alde zaharreko balkoi edo leiho dotoreenari 90 euroko saria emango diote, eta alde berriko onenari beste horrenbeste.

San Juanetan banatuko dituzte sariok, ekainaren 23an, hain zuzen ere.



Arrolakoak piriniotan egon dira

Joan zen asteburuan, apirilaren 13tik 14ra, hain zuzen ere, pirinioetara irteera egin zuten Arrola mendi taldekoek. 11 lagun joan ziren Linza aldera. Eguraldiak asko lagundu ez zien arren, ibili ziren mendian. Argazkian, Achar De Alano mendian, Zuri-za inguruetan, hamarretakoa egiten ikus ditzakegu antzuolar mendizaleak. /A.I.

KIROLA

Arrolak batzorde berria dauka, baina batzordekide berrien beharrea jarraitzen du

Martxoan egin zuen urteko batzar orokorra Arrolak. Bost kidek laga zuten batzordea orduan, eta kide bakarra sartu zen, Maria Dolores Arbulu. Ordutik hona, beste bi kide berri sartu dira batzordean: Iker Manso eta Jose Mari Iturbe. Lehendik jarraitzen duten kideekin (Arkaitz Zabalo, Nekane Etxabe eta Harri Arin) sei lagunek osatzen dute batzordea. Beraz, kide berrien beharrea jarraitzen dute.

Alebin mailako saskibaloia taldeak ondo ibili dira, baina ez dira probintzia fasera pasatu

Eskola kirolean, saskibaloiko alebin mailan jokatzeko duten nesken eta mutilen taldeek joan zen asteburuan jokatu zituzten probintziako fasera pasatzeko partiduak. Neskek hiru partidutik bakarria irabazi zuten, eta ez dira probintziako fasera sailkatu. Mutilek ere partidu bakarria irabazi zuten, eta ez dira fase horretara pasatu.

Bi jardunaldi besterik ez dira geratzen herriko pala txapelketako finalerdietarako

Bihar, zapatua, astero moduan, bost partidu jokatuko dituzte goizeko 9:00etan hasita; arratsaldeko laurietatik aurrera, berriz, beste partidu bat jokatuko dute. Apirilaren 27an beste sei partidu jokatuko dituzte. Horrela, lehen eta bigarren mailako finalerdiak erabakita geratuko dira.

Maiatzaren 4an jokatuko dituzte bi mailako finalerdiak; finalak, berriz, maiatzaren 11n izango dira.

PARTIDUAK

FUTBOLA

Apirilak 20

16:30: Antzuola-Billabona (gazteak)

Apirilak 21

10:00: Antzuola-Ekintza (kadeteak)

12:00: Antzuola-Aloña Mendi (neskak)

PILOTA

Apirilak 20 (Herriko pala txapelk.)

09:00etatik aurrera bost partidu

jokatuko dituzte

16:00etan beste partidu bat

EMAITZAK

FUTBOLA

Antzuola 2 Urola 3 (2. erregion.)

Ilintxa 4 Antzuola 0 (neskak)

Union Txiki 3 Urola 0 (gazteak)

Aretxabaleta 4 Antzuola 0 (kadet.)

ESKOLA KIROLA

Eskubaloia, benjaminak

Antzuola B-Elgeta 2-0

Antzuola A-San Martin C 2-1

Saskibaloia, alebin neskek

Antzuola-Oñati 14-13

Saskibaloia, alebin mutilak

Antzuola B-Aramaio 34-32

Antzuola B-Oñati 22-26

OHARRAK

GAZTETXOENDAKO IRTEERA ARROLAK ANTOLATUTA

Apirilaren 28rako gaztetxoendako irteera antolatu du Arrolak. San Adrianetik Arantzazura joango dira oinez. Goizeko 8:30ean irteera plazaatik. Oraindik, hala ere, ez dute erabaki Arrolakoek egun guztirako edo goizerako bakarrik izango den irteera; eguraldiaren arabera izango da hori.

Ibilaldi horretara joan nahi dutenek, apirilaren 23an, datorren martitzenean, eman beharko dute izena Arrolak Kalebarren duen egoitzan, 19:00etatik 20:00etara.

Nagusiek lau euro ordaindu beharko dute. Ikasle, gazte eta langabeteek, berriz, ez dute ordaindu beharrik izango.

BOTEPRONTOAN/ Aitor Larrea · Triatleta

“Aurten triatloiko araudia aldatu dute, eta horrek kalte egin digu bizikletaz ondo ibiltzen garenoi”

Txirrindulari izandakoa da Aitor. Orain, berriz, triatleta dugu: igerilaria, txirrindularia eta korrikalaria. Debagoiena Antxintxika taldean dihardu. Martxoan hasi ziren lasterketekin, eta denboraldi txukuna egiten ari da.

Martxoan hasi zenuen denboraldia. Nahiko ondo ari zarete, ezta?

Bai, lehenbiziko lasterketan nahiko ondo ari gara. Ni ere hasierako lau lasterketan oso ondo ibili naiz; azkeneko bietan, berriz, larri samar. **Antzuola herri txikia izanik, triatleta asko ari zarete lasterketetan.**

Bada, bai; Garitano, Baleztena, Pildain, Peña, anaia eta neu ari


gara. Sei lagun; dezente, Antzuola baterako.

Orain arte duatloi probak egin dituzue. Noiz hasiko zarete triatloiarekin?

Ekainean hasten dira triatloiko probak. Oraindik duatloiko beste lau bat lasterketa gertatzen zaizkigu. Igeriketako entrenamenduekin ere hasita gaude dagoeneko. Goizero, seiretarako joaten gara Oñatiko igerilekura.


Gogorra izango da lanean eta horrelako kirol baten era berean aritzea, ezta?

Bai, baina honetan ari garenok ohituta ere bagaude. Ni beti izan naiz kirolaria eta horrelaxe ibili izan naiz beti. Minen bat hartuta-edo, kirol egin ezin dudanean, orduantxe



pasatzen dut gaizki. Kirola egiteko irrikitan egoten naiz. **Zeintzuk dira aurtengo zure helburuak?**

Zarauzko lasterketan emaitza on bat lortu nahiko nuke. Lasterketa luzea izaten da Zarauzkoa: 2,5 kilometro igerian, 80 kilometro bizikletaz eta beste 20 korrika. Dena dela, denboraldia ilusio handiarekin hasi nuen arren, orain nahiko desmotibatuta nago; araudia aldatu dute, eta bizikletaz ondo ibiltzen garenoi kalte egiten digu araudi berriak. Izan ere, bizikletaz aurrekoaren gorpilari itsatsita joaten lagatzen dute orain, eta hori korrikalariendako abantaila da, eta txirrindulariondako, berriz, kalte.



Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea, 10. Antzuola. Tf. 943 78 71 78
Erakusketa: Kalebarren, 1. Antzuola. Tf. 943 78 71 79. Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrun instalazioak

- Bero-urreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

MUJIKA HARATEGIA



**Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak**

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

LEKY-BERRI MERENDEROA

Janariak
eta
edariak

Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko apirilaren 19a / 95. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

Hasi dira jaietako danborrada gertatzen

OXEL EROSTARBE

GOIBEKOKALEk aurreratu zuen moduan, aurtengo Ferixa Nagusietan herriko umeak irtengo dira danborradan. Hasiak dira dagoeneko kantuak ikasteko entseguak egiten. Barikuro batzen dira, kiroldegian, arratsaldeko bostetatik aurrera.

Izan ere, danborradan joko dituzten piezak ikasteko, entsegu ugari egin beharko dituzte umeek. Denera, 80 neska-mutikok eman dute izena danborradarako.

Josu De Vega, Alex Arantzabal eta Beatriz Basauri dabilta umeei erakusten danborradako doinuak. Oraingoz, hirurak oso gustura daude umeak egiten ari diren lanarekin; are gehiago, aurtengoan ere danbor doinuak beste urteetan bezain ondo entzungo diren ziurtasuna dutela adierazi digute.



Herriko neska-mutikoak hasi dira danborradarako gertatzen.

JAIETAKO EGITARAUA, BETETA

Gobernu batzordeak 34.858 euroko aurrekontua onartu du aurtengo Ferixa Nagusietarako. Jaietako batzordeak ia zehaztuta dauka aurtengo egitaraua. Urtero

legez, esfortzu handia egin dute egitarau zabala osatzeko.

Eguenean, baserritar giroko jaia antolatzeko asmoa daukate. Hori dela eta, baserritar giroko

mozorroak gertatzen joateko dei egin nahi die Jai batzordeak herriko koadrilei. Eguenean, afaria eta dantza txapelketaz gain, Etzakit taldea izango da plazan.



Domekan izango da bonboniaren postura

Eguraldixak laguntzen badau, oingo domekan, goizeko 10:30ian, ekingo dotsa Etor Sarasuak Intxorta igotziari. Abeletxeren Txabolan hasi, Intxortara igo eta Gure Bórdara heldu biharko da Etor 45 minutu bete aurretik.

Patxi tabernan hartzeka dare ondio postura danak. Bat barrixa dago, gaiñera: 43 minutuan baietz, 220 euro.

Goibeko Kultura Elkartaren kinielia be herriko taberna danetan egin leike. Denporia asmatzia da kontua.

GOITB ELGETAN

UHFko 50. kanalean ikusten da GOITB

O.E.

Horrek ez du esan nahi telebistako 50. katera joanda GOITB ikusten denik. 50. kanala da GOITB antenaren bidez sintonizatzeko orduan aukeratu behar dugun UHFko kanala.

GOITBko seinalea Elgetako leku guztietan har daiteke dagoeneko. GOITB ikusteko, ordea,

teknikari batek etxeko antenari gehigarri bat jartzea derrigorrezkoa izango da.

Etxeko antenari jarri beharreko gehigarria Urubururi begira egon behar da. Hori egin ondoren, norberak sintoniza dezake GOITB UHFko 50. kanalean.

Aurrerantzean, gure herriko eta ibar osoko berriak telebistan ere ikusiko ditugu elgetarrok.

LABUR

Aurreko astean hasi ziren ibilgailuen aurtengo zerga kobratzen

Maiatzaren 15ean amaitzen da ibilgailuen 2002ko udal zerga ordaintzeko epea. Banketxeetan edo kutxetan helbideratuta dauden ordainagiriak horietatik bertatik kobratuko dituzte maiatzeko lehenengo astean. Bestelakoek etxean jasoko dute ordainagiria, eta banketxeetan edo kutxetan ordaindu beharko dute. 572 ibilgailu daude Elgetan. Gehienak, 500 inguru, autoak dira; 40 inguru furgoneta eta kamioi, 25 moto, eta gainerakoak traktoreak.

Apirilaren 25erako uraren inguruko hitzaldia antolatu dute Mayakoek

Maya Ingurumen Taldeak antolatuta, hitzaldia izango da hilaren 25ean, 21:00etan. Maria Hernando izango da hizlaria, Geologian lizentziaduna, eta gaia izango da *Ura, erabili aurretik eta ondoren*. Liburutegian izango da, eta ikus-entzunezko materialaren bidez urak Lurrean bizi izateko duen garrantzia aztertuko dute.

Hitzaldia baino lehen, 18:00etatik 19:00etara, hain justu, erabilitako olioak jasoko dute Mayakoek plazan.

Hirugarren adinekoek 25a izango dute azken eguna oporretarako izena emateko

Izan ere, urtero moduan, oporraldiak antolatu ditu Inersok Penintsulara, Balear Uharteetara, Kanarietara, Portugalera, Asturiasera eta Natura Turismoa egitera joateko hainbat aukera dago. Izena emateko azken eguna apirilaren 25a izango da. Bestalde, hilaren 27an egingo dute Erretiratuen Elkarteko Batzar Orokorra.

Elgetan ere taldea eratu dute Zuberoa Garatzen proiektua bultzatzeko

Ekimena bultzatzeko, 250 euroko sei akzio erosiko dituzte herriko hainbat taldek. Gaztetxeak barikuko kontzertuan ateratako dirua ekimen horretara bideratu zuen, Pilota Elkartekoek ere akzio bat erosteko asmoa daukate, sortu berri den taldeak mago bat ekartzeko asmoa ere badauka apirilaren 27rako. Egun horretan, mahaia jarriko dituzte kalean, ekimenaren berri emateko.

KIROLA

Sebastian Arantzabal, Venezuelan izan da Euskadiko selekzioarekin

O.E.

Venezuelako San Frantzisko Jabierren Lagunen Elkartek gonbidatuta, hango hiru txirloko bolo txapelketan parte hartu dute Euskadiko Selekziokoek.

Dirudienez, Andeatako Timotes herrira euskaldunek eraman zuten bola-jokoa eta hango biztanleek gorde dute ordutik.

Bertako txapelketa irabazi zutenen aurka jokatu zuten finala Sebastian Arantzabal eta selekzioko beste kideek. Eta baita irabazi ere. Hala ere, ez zen batere erreza izan, hemen txirloak bata bestearen ondoan dauden arren, han bata bestearen ondoan jartzen dituzte eta.

Garaipena ordea ez da Sebastianek Venezuelatik ekarri duen bakarra. Kontatu digunez, harreman zuzena izan dute hango biztanleekin eta batera zenbait proiektu aurrera eramateko asmoa daukate. Venezuelako egoeraren berri ere izan dute.



SEBASTIAN ARANTZABAL

Selekzioko kideak Venezuelako txapelketaren aurka garaipena lortu eta gero.

Zapatuan Kopako finala jokatu du Estampaciones Intxortak

O.E.

Bihar, arratsaldeko 18:00etan Eibarko saskibalo txapelketako finala jokatu du Estampaciones Intxortak. Ligan bigarren geratu dira. Kopan, berriz, oraindik irabazteko aukera dute elgetarrek. Oraingo zapatuan Eibarko Ipurua kiroldegian izango da finala.

Estampaciones Intxortakoen aurkaria Eibarko Celtics taldea izango da. Talde honen aurka ligan jokatuako partidua irabazi egin zuten elgetarrek. Kopako finala desberdina izango dela onartu arren, Estampakoek aukera ugari dituzte aurtengo Kopa txapelketa irabazteko.

Iazko Kopa txapelketan ez zuten duten maila erakutsi Estan-

pakoek eta laster kanporatua zizuten. Aurreko urteetan bezala aurtengoan ere aukera ugari dituzte Kopa Elgetara ekartzeko.

ARETO FUTBOL TXAPELKETA ASTEKOTAN

Datorren zapatuan, apirilak 27, hasiko da Elgetako areto futbol txapelketa. Badirudi aurtengoan partehartzea jaitsi egingo dela. Izan ere, momentuz, bost taldek bakarrik eman dute izena.


Txapela eta "Ni dios se salvix" elgetarrak, Komando piperrak bergararrak eta Bar el Arco eta Paisano Club durangarrak dira txapelketan izena eman duten taldeak. Azken orduan beste talderen batek izena emango duen esperantza azaldu dute antolatzaileek. Izan ere, txapelketa bost taldek bakarrik jokatzeko nahiko partaidetza eskasa litzateke.

Apirilaren 25ean bilera egingo dute talde denek. Bilera honetan erabakiko da aurtengo txapelketako egutegia. Txapelketan parte hartu nahi duen talderen bat egonez gero badauka oraindik aukera. Honetarako udaltxean eman beharko du izena lehenbailehen.

LAU`T ERDIKO TXAPELKETA HASI DA

Aurreko astean ekin zion Elgetako Lau`t erdiko pilota txapelketak. Afizionatu eta gazte mailako pilotari onenek hartuko dute parte aurtengo txapelketan. Izan ere, aurtengo txapelketa berezia izango da, bertan pilotari onenak bakarrik arituko dira eta.

Bergarako Hiria txapelketan Arantzeta eta Casadok 22 eta 6ko garaipena lortu zuten Errasti anaien aurka.



Pello Alberdiren lanak Durangon

Durangoko San Agustin Museoko areto nagusian, Pello Alberdiren azken koadroen erakusketa dago. Apirilak 28ra arte egongo dira bertan Elgetako artistaren lanak. Kolore biziko koadroak aurkeztu ditu Pellok Durangon. Koadro batzuk puntu-ka eginda daude eta argazki estilora egokitzen direnak ere ikus daitezke San Agustin Museon./O.E.



Apirilak 23an liburu eguna

Datorren martitzenean, arratsaldeko 16:30etatik aurrera plazara aterako dute liburutegia. Izan ere, liburu eguna dela eta, liburutegian dauden liburu berrienekin erakusketa egingo dute plazan. Liburu berrienak zeintzuk diren ezagutzera emateaz gain, liburutegian zaharrak geratu diren liburuak jendeari ematea da antolatzaileen asmoa. /O.E.

**JAR EZAZU
HEMEN
ZURE
PUBLIZITATEA**

Goibekokale

**PANA DE ROKUA
ZATE TXEAL**

Asteburuetan bertako babak eta saiheskia

SALBADOR 10 ELGETA TEL. 943 76 82 73

**SAIOA ARANZABAL
MASAJEAK**

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea •
- Reflexologia •
- Hidromasajea •
- Kirol masajea •
- Solariuma •
- Drenaje linfatikoa •
- Algekin eginiko estalkia •

Dei ezazu **646 50 00 29** telefonora ordua eskatzeko

ERRETRATUZAHARRA

Elgetako dantzari gaztiak jorrai dantzan

Jorrai dantzia egiten hasteko gertu ikusi geinkez hemen erretratu Ozkarbiko dantzari gaztiak.

Izan be, lehenau, dantzari gaztiak eta nagusixak izan zittuan Ozkarbi Elkarteko dantza taldiak. Gaur egunian dantzari gaztiak bakarrik dittugu Elgetan.

Frontoian, 1980ko gañonetan etarata dago hau erretratuau. Jaixa antolatu zeben frontoian eta bertan herriko talde desberdiñek hartu zeben parte. Batzuk kantuan, beste batzuk antezle lanetan, bestiak bertsotan eta honek gaztiok dantzan.

Jorrai dantzia egitteko gertu dare zazpi mutikuok. Bata bestia baiño serixuau, izan be, frontoian jende ugari batu zan hemen egunian.

Oinguan nahiko errez asmau dogu zeintzuk diran erretratuau agertzen diranak. Aurrian dagona Samuel Gorrotxategi da. Ezkerreko ilaran, aurretik atzera darenak honek dira, Bittor Gallastegi, Patxi Bouzas eta Bixente Askasibar. Eskumako ilaran, aurretik atzera, Asier Osoro, Luis Atorrasagasti eta Gorka Bolinaga dare.

Herriko neska mutikuak hasitta dare dantza ikastaruetan. Laster egingo dabe lehenengo agerraldixa, urtero moduan, Asentzio Eguneke erromerixan parte hartuko dabe eta. Ia urtero moduko saiua eskaintzen doskuen.

Argazkia: Argazki artxiboa

Informazioa: Dantzariak


Urtea: 1980



NOLA ALDATU DIREN GAUZAK


Elgetako sarreria Elorrixotik

Ikusi geinken moduan asko aldatu da Elgeta 70 urtian. Gerriak herrixa ziharo txikittuta laga zeban. Hori dala eta, oinguan gerra aurreko erretratu bat aukeratu dogu herrixa zelan zeguan ikusteko. Etxietako bizkai alderako leihuak txikixak dira, normalian haiziak bizkaittik jotzen dau eta. Elizia eta Kataia (gaurko kultura etxia) be ziharo aldatuta dare.



≈ 1933

Elorrixa eta Aixolako bidian artian zoro eta ortuak zeuzan. Elizia ziharo aldatuta dago, kanpandorreko erlojua eskumaldian dago.



2002

Zoruen lekuan Kiroldegixa dago gaur egunian Elorrixora bidian. Bizkaira emoten daben leihuak be haundixaguak dirala ikusi geinke.



Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka, 4 behea.

Tel.: 943 76 18 93

BERGARA



U
UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

MUJIKA FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA



San Roke Auzoa 1
ELGOIBAR
Tel. 943 744 132
Faxa. 943 744 153
ingenieria@fmh.es
www.fmh.es



cesi aquitaine
poitou-charentes



ES-0633-1998

Euskadi

2002/2003 IKASTURTEA

Makina Erremintaren Institutuak aukera ezin hobea eskaintzen dizu:

TXANDAKAKO ENPRESA INGENIARITZA


- ◆ **Enpresarekin elkarlanean** garatutako lanbide proiektua
- ◆ **Lan-kontratua** prestakuntzaren lehen egunetik
- ◆ **Emaiza erakargarriak:** tituludun **%100ek lanean** dihardute eta horietatik **%25ek** zuzendaritzako ardurak daramatzate

BILERA INFORMATIBOA

- APIRILAREN 24an, asteazkenean, bilera informatiboa egongo da prestakuntzaren ezaugarriak eta sarrera-baldintzak azaltzeko: 18:30ean Makina Erremintaren Institutuko (IMHko) instalazioak bisitatuko ditugu eta 19:00etan bilera informatiboa hasiko da.

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

- MAIATZAREN 24ra arte matrikulazio epea zabalik.



IPINTZA INSTITUTUA BILERA INFORMATIBOA

BATXILERGOKO IKASLEEI (16 URTETIK AURRERA) ETA GURASOEI ZUZENDUA.

Apirilaren 24an 18:30ean

Bilera amaitu ondoren ikastetxea bisitatzera gonbidatzen zaituztegu.



BATXILERGOETAKO AURRE MATRIKULAZIO EPEA

Maiatzaren 2tik 10era

BONI LASKURAIN 17-19. TF. 943 76 31 42 / 20 82



SAN MARTIN - IPINTZA - M. ALTUNA

Bergarako ikastetxe publikoak



Orain, European ere, Bezero desberdinentzat Aukera desberdinak.

Orain, Zure Europako bezeroei egindako bidalketen baldintzak erabaki ditzazkezu. EUROPREMIUM zerbitzuarekin, behar dituzun opzioak aukeratu: Interneten bitartez jarraipena egitea, Arrisku orotarako aseguruua, mugako kudeaketa, jaso izanaren agiria.....Horrela da Euro Express-en paketeria zerbitzua, Guipuzcoana Euro Express eta beste sektoreko enpresa europear liderrak elkartzen dituen paketeria sarea 20 herrialde baina gehiagotan. Galdetu eta ikus ezazu: zure enpresarako bezero bakoitza berezia bada, Euro Express-entzat ere.

943 763 642

Bergaran, San Juan Auzoan



www.guipuzcoana.com

 **GUIPUZCOANA**
EURO EXPRESS